ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2007ko martxoaren 12a > Astelehena > III. urtea > 137. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net



"Ez jakitearen arazoa dago; jendeak ikusten ez duena ez da existitzen"

**Jon Goikoetxea**
Iturrigorri Elkarlana > 06

**G2a** Potemkin eta Gose, 'Eutsi!'-ko diskoan > 23

**INGURUMENA** Pinuak beste edozein zuhaitz baino ugariago dira oraindik > 02-03

**OÑATI** Txantxiku Ikastolak 40 urte betetzen ditu aurten, irailean > 12

**ANTZERKIA** Mireia Gabilondoren 'Emakumeak izarapean' lana estreinatu da > 24

**HEZKUNTZA** > IRAKASKUNTZA SISTEMA BERRIA

## Irakaskuntza marko berriaz iritzi ona dute ikastetxeek

**A, B ETA D** Orain arteko ereduak desagertu egingo dira, eta euskara izango da hizkuntza nagusia

**BAIKOR** Ibarreko eskola publikoko zein ikastola sareko ordezkariek iritzi ona agertu dute marko berriaren gainean > 04

**ENPRESA** > FAGOR

### Ferroforma, aukera ona ibarreko enpresentzat

Beste behin ere, egindako lanarekin pozik bueltatu dira Debagoienera Ferroforma azokan izan diren enpresak. Sarrailagintza da han ordezkatutako arlo nagusia, baina ez bakarra eta, hala, egurgintzan, eskuko tresnak egiten, lorategiko ekipamenduetan, dekorazioan... diharduten enpresak izan dira.

Betiko bezeroekin egoteko eta harreman berriak egiteko aukera da gurekoek gehien baloratu dutena. > 05

**OBRAK** > TUNELA

### Olandixoko tuneleko lanak, laster enkantera

Asteon, Gipuzkoako Foru aldundiak baiezkoa eman dio Olandixoko tunelaren trazatuari. Halaber, iragarri dute Olandixoko tunela egiteko obrak aurten bertan aterako dituztela enkantera.

Arrasate mendebaldeko saihesbidea Aretxabaleta eta Arrasate arteko mugan hasiko da, Aretxabaletarako bide zaharretik gertu; hain zuzen, GI-3920 eta GI-2620 errepideen arteko bidegurutzearen gainean. > 10



PARTIDU AMAIERA Bergarako jokalariak, Gipuzkoako txapeldun dagoeneko. JOSETXO ARANTZABAL

**ESKUBALOIA** > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

### Bergarak Gipuzkoako eskubaloi txapelketa ospatu zuen zapatuan etxekoen aurrean, Leizarani 34-22 irabazita

Txapelketa aurreko astean erabakita geratu arren, zapatuan, etxekoen aurrean ospatzeko aukera izan zuen Bergarako senior mailako eskubaloi taldeak. Josetxo Muniategiren mutilek denboraldi borobila egin dute: ligan jokatutako 18 partiduetatik bakarra galdu dute. > 19

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Elkarrizketa** > 06
**Iritzia** > 08
**Herriak** > 09-14
**Kirola** > 15-22
**Kultura** > 23-27
**Sailkatuak** > 28
**Irrati-Telebista eta Hitzorduak** > 29
**Berri-zakua** > 30-31

Barruan, Aloña Mendiko saskibaloi taldeen posterra



**ENPRESA** > FAGOR ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

### Fagor Etxetresna Elektrikoek 12 milioi irabazi zituzten iaz

Fagor Etxetresna Elektriko taldeak 12 milioi euroko irabaziekin bukatu zuen 2006ko ekitaldia, aurrekoa baino 4,5 milioi gehiago. Horrez gain, iaz 1.728,7 milioiko fakturazioa izan zuen taldeak, 2005ean baino %15 gehiago. Datu horiek taldeko arduradun Jabier Gantxegik eta Txema Gisasolak jakinarazi zituzten joan den eguenean Bilbon, 2006ko jardunaldiaren berri emateko ekitaldi baten barruan.

Beste datu batzuen artean, Fagor taldeak Espainian eta Frantzian bere lidergoa sendotu duela esan zuten. Horrenbestez, 2006-2009 eperako plan estrategikoaren lehen urteko helburuak betetzat jo zituzten. > 05

**EMAKUMEAK** > OSPAKIZUNA

### Martxoaren 8ko ekitaldi nagusiak

Emakumearen Nazioarteko Eguna eguenean izan bazen ere, ospakizun asko aste bukaeran egin dituzte ibarrean. Jendetsuena zapatuan Arrasateko azoka eta dantza erakustaldia izan zen. Arrakasta handia izan zuten. > 04, 30

**INGURUMENA** > BASOEN INBENTARIOA

# Pinuak dira nagusi gure ibarreko basoetan, bertako zuhaitzen gainetik

**BASO-AZALERA** Baso inbentarioaren arabera, EAEn 400.000 hektareako baso azalera dago; lehen aldiz, bertako zuhaitzak pinudiak baino gehiago dira

**PINUAK** Gure ibarrean, landaketa da ia gehiena (%71,30), pinuak, batez ere; bertako basoek azalera txikia hartzen dute (%28,70)

**PAGADIAK** Baso autoktonoen artean, pagadiak dira nagusi Debagoienean; Gatzagatik Arantzazura bitarteko zatia dago ondoen zainduta

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Euskal Autonomia Erkidegoko 2005eko Baso Inbentarioa egin ostean, emaitzak jakinarazi ditu asteon Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak.

Jasotako datuen arabera, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan 400.000 hektareako baso-azalera dago, eta, bederatzi urtetan lehen aldiz, tokiko zuhaitzen lur azalera pinudiena baino handiagoa da.

Basoetako egur kopuruari erreparatuko bagenio, EAEko basoek 55 milioi metro kubiko egur sortzen dutela dio inbentarioak, orain bederatzi urte baino 13 milioi gehiago; beraz, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako basoek karbono dioxidoa xurgatzeko ahalmena areagotu egin dute azken urteotan. Kopuru gehienak igo badira ere, behera egin duena zuhaitzen galera da: 1.000 hektarea baso baino ez dira erre.

Osasunari eta ingurumenari eragiteaz gain, ondorio ekonomikoak ere badituzte basoek: basoen ustiapena indartu egin da urteen joanean, eta basoak ekoizpen handiko gune bihurtu dira.

**Eusko Jaurlaritzako datuen arabera, zuhaitzez estalita dago ibarreko azalera osoaren %73,78**

**DEBAGOIENA, ZUHAITZEZ ESTALITA**

EAEko datuak dira horiek, baina, zehazki, Eusko Jaurlaritzak emandako Debagoieneko datuei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu ibarraren azalera osoaren (41.589 Ha) %73,78 (30.683 Ha) zuhaitzez estalita dagoela; EAEko zuhaitz estaldura altuenetakoa izango da, ziur aski.

Ia gehiena landaketa da (%71,30). Horren baitan, kanpoko koniferoen landaketa da nagusi gure lurraldean, adituen esanetan. Insignis pinua landatzen da, batik bat; ondoren, larizio pinua, eta alertzeak, gero. Azken horiek, hala ere, beherantz doazela dirudi eta, pixkanaka, Douglas izeiak hartu dio lekua. Datuek erakusten dute ibarrean egur ekoizpena dela nagusi.

Bertako basoek, ordea, azalera txikia hartzen dute (%28,70); beste lurralde batzuekin alderatuta, gutxiago. Horien artean, pagadia da nagusi eta, ondoren, baso nahasia. Hala ere, aipatzekoa da hariztien azalera eskasa.

Bestalde, datuek erakusten dute jabego pribatuak duen indarra. Debagoiena osoa kontuan



**PAGOAK** Gure ibarrean, bertako zuhaitzen artean, pagoak dira gehiengoa. JOSETXO ARANTZABAL

**"Gipuzkoan, insignis pinu gehien izango duen zonaldea Debagoiena da"**

**"Modu interesatuan erabiltzen da baso hitza; zuhaitz askoko azalera guztiak ez dira basoak"**

hartuta, Debagoienean %10era ez dira heltzen (Arrasaten, %2,9, eta Bergaran, %0,7). Aramaioko kasuan, herri-lurrek %20 juxtu pasatzen dute. Leintz Gatzagakoa, ostera, salbuespena da, %63,9 baitira herri-lurrak.

**PINUDIAK, BASO?**

Datuak datu, basoen gainean, ordea, askotariko iritziak daude. Batzuek diote basoak pinudiek eta zuhaitz hostozabalek, edo bertako zuhaitzek, osatzen dituztela; beste batzuek, aldiz, pinudiak ez dituzte basotzat hartzen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako zuzendari Jose Mari Aldanondok esan digu Gipuzkoan, azaleran, igo egin direla basoak azken inbentariotik hona. Bide batez, Debagoieneko basoei argazki moduko bat egin die: "Debagoienean basoa, gehienbat, ekoizpenerako da, hau da, koniferoak eta insignis pinuak daude, batez ere. Mendietako zonaldean, Oñati goiko aldean, Degurixan, Arantzazun, Gatzagan… hor, bertako basoak badaude; pagadiak eta, Gatzagan, hariztiak ere bai. Hortik beherakoak mendi produktiboak dira. Gipuzkoan, insignis pinu gehien izango duen zonaldea Debagoiena da", esan digu Aldanondok.

Oñatiko Natur Eskolako Imanol Biain ez dator bat horrekin: "Baso hitza bera modu interesatuan erabilita dago. EAEko %55 baso dela esatea ez da egokia, nire ustez. Gauza bat litzateke zuhaitzak landatuta dauden azalera izatea, eta bestea, basoa. Hor, gehiena pinua da, epe motzera zuhaitzak bota eta etekina ateratzeko, egurra lortzeko, erabiltzen direnak. Baina baso bat izan dadin, ekosistema izan behar da. Bertan oinarritu behar dira landare batzuk, zuhaitzak, onddoak, animaliak… 40 urtean, bota egiten dira pinuak, eta ekosistema bat osatzeko astirik ez dago. Heldutasunera iristen direnean eta ondoen dagoenean, baso kontsideratzeko orduan, mozten dira. Beraz, nik neuk baso izendatuko nituzkeenak datuek esaten dutenaren erdia edo gutxiago lirateke", diosku.

**BASOEN ERABILERA**

Baso izenak zalantzak sortu arren, zuhaiztiei ematen zaien erabileraz ere jardun dute adituek. Gipuzkoako Foru Aldundiko Jose Mari Aldanondoren esanetan, "Gipuzkoa osoa kontuan hartuta, orekarako bidea hartzen ari da, basoei dagokienez; hau da, berdintzen ari dira bertako basoa eta koniferak, kanpokoak, produkziorako erabiltzen direnak. Insignis pinua galtzen ari da pixkanaka, baina, hala ere, gehienbat Debagoienean daude. Zonalderik produktiboena da eta, kalitateari dagokionez ere, pinurik onenak ateratzen diren lekua da".

Pinuari, azken 15-20 urteetan, lehen baino erabilera "nobleagoa" ematen zaiola esan digu Aldanondok: "Garai batean, pinua asko ugaritu zen. Lehengo gizaldiaren hasieran, mendiak biluzik zeuden, eta izugarrizko ahalegina egin zen mendiok zuhaitzekin janzteko. Orduan, asko ugaritu zen pinua. Batez ere, papergintzarako erabiltzen zen, baina, azken urteotan, pinuaren kalitateari asko erreparatzen zaio eta eraikuntzarako, altzarietarako… erabiltzen da. Beraz, pinua leku asko harrapatzen joan da; batez ere, kalitatezko pinuak non hazten diren, leku horiek hartzen dituzte, eta txarragoak uzten joan dira; batzuek bertako arbolek hartu dituzte, edo epe motzeko beste konifera batzuk".

Imanol Biainek bertako zuhaitzetaz berba egin digu, eta zertarako erabiltzen diren azaldu: "Garai batean, ikazkintzarako erabiltzen ziren. Horretaz gain, etxeetarako su-egurra ere ateratzen zen. Pagorik onenak, berriz, etxegintzarako eta eraikuntzarako erabiltzen zituzten".

Egun, baso mota hori ez da gehiegi ustiatzen, Biainen esanetan: "Orain dela 60 urte inguru, ikazkintzaren gainbeherarekin, abandonatu egin ziren zuhaitzok eta, zaharkituta daudenez, etekin ekonomiko askorik ez da ateratzen hortik, nahiz eta, noizean behin, entresakak egiten diren zerrategietarako. Beste erabilera bat aisialdia litzateke: perretxiko zaleak, mendizaleak, ehiztariak… gustura ibiltzeko tokiak dira horiek".



ZUHAITZ EGUNA Arrasaten 200 arbola landatu zituzten neska-mutikoek egubakoitzean zuhaitzen garrantziaz ohartzeko. PEIO GARAI

**BASO AUTOKTONOAK GUREAN**

Gurean, pinudiek hartzen dute azalera handiena, baina bertako basoak ere badira batzuk. Autoktonoen artean, pagadiak dira nagusi. Modu naturalean, 600 metrotik 1.500 metroko garaieran egongo lirateke, gutxi gorabehera. "Ibarrean, ondoen zainduta dago hasi Gatzagatik eta Arantzazura bitarteko tartea: Artixa mendikatea, Degurixa aldea, Arantzazu eta Araotz ingurunea, Iturrigorriko basoa… Aloña-Aizkorri iparraldeko aurpegia. Bestalde, han-hemenka badaude beste pagadi txiki batzuk", azaldu digu Imanol Biainek.

Beste baso autoktono batzuk izango lirateke 600 metrotik beherantz agertzen direnak. "Gurean, baso mota horiek penagarri daude. Harizti zabalik ez daukagu, horien leku naturala pinudiek hartu dutelako. Altzadiak erreka ertzetan daude, eta bertan lantegiak, etxeak, errepideak… eraikitzen direnez, leku gutxitan geratzen dira; Oñati inguruan, bakarren bat. Artadia leku batean geratzen da nahiko ondo, Udalaitzeko hegoaldeko maldan, eta gaztainadiak ere desagertu egin dira", diosku Biainek.

## Debagoieneko lurrak datutan

| | HEKTAREA | PORTZENTAJEA |
|---|---|---|
| **BASO LURRAK** | **34.216** | **%82,27** |
| **Zuhaitzekin** | **30.683** | |
| LANDAKETA | 21.876 | |
| BASOA | 8.807 | |
| Basoak | 8.605 | |
| Errekak | 199 | |
| Beste | 3 | |
| **Zuhaitzik gabe** | **3.533** | |
| Sastrakak | 1.548 | |
| Belardiak | 769 | |
| Larreak | 741 | |
| Harkaitzak | 475 | |
| **BASO LURRAK EZ DIRENAK** | **7.373** | **%17,73** |
| **GUZTIRA** | **41.589** | **%100** |

**ZUHAITZ EGUNAK**

Ustiapenerako erabiltzen diren basoek gora egin badute ere, bertakoak kontserbatzea denon ardura da. Zuhaitzen garrantziaz ohartarazteko, gurean Zuhaitz Egunak antolatu ohi dituzte. Mendigoietan ez, baina gaztetxoek arbolak landatu dituzte han-hemenka.

Zuhaizti zein baso, batzuendako egoera hobetu da; beste batzuendako, asko dago oraindik hobetzeko.

## Gipuzkoako mendi-bide sarearen webgunea 'on-line' ipini dute edozeinen eskura

Basoak, ustiapenerako ez ezik, aisialdirako ere erabili ohi dira. Mendigoietara goazela, sarritan igarotzen da gure ibilbidea basoetatik, eta batek baino gehiagok pentsa lezake basoa galtzeko moduko parajea dela. Horrelakorik ez gertatzeko, ibilbidearen berri aurrez jasotzea komeni da, eta, horretarako, bide berri bat dugu aurrerantzean: Foru Aldundiak eta Mendi Federazioak *on-line* jarri duten Gipuzkoako mendi-bide sarearen webgunea. Bertan, ibilbidearen distantziaren eta zailtasunaren arabera, hiru motatakoak aurkituko ditugu: luzeak, motzak eta herri ibilbideak.

Mapa orokor bat aurkituko dugu mendi-bide guztiekin, eta xehetasunezko mapetarako sarbidea ere eskaintzen du; gainera, bideak udalerrien, eskualdeen edo ibilbide motaren arabera bila daitezke. Mapak ez ezik, irteteko eta iristeko lekuak, ibilbidearen distantzia, profila, elementu interesgarriak, argazkiak... ikus daitezke bertan. Aukeratutako ibilbide guztien mapa eta profila inprimatzeko aukera dago, eta GPS sistema dutenek nahi dituzten ibilbideak saretik jaisteko aukera izango dute.

Mendi eta basoetan barneratu aurretik, honako helbidean aurki dezakezue informazioa: *www.gipuzkoaoinez.com.*



**OSPAKIZUNAK** > EMAKUMEAREN EGUNAREN INGURUKO EKINTZAK

# Aste bukaeran ere egin dituzte Emakumearen Eguneko ekintzak

Eguraldi onak lagunduta egin zuten zapatuan Martxoaren 8aren inguruko ekintza nagusietako bat: Emakumeen Azoka, Arrasaten

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Antolatzaileek iritzi ona azaldu dute Emakumearen Nazioarteko Egunaren harira egindako ekitaldien gainean. Ekitaldi garrantzitsuenak martxoaren 8an bertan, eguena, eta joan den aste bukaeran egin dituzte Debagoien osoko emakumeek.

Hala, aste bukaerako ekitaldi nagusia Arrasateko Udalak urtero antolatzen duen emakume baserritar eta artisauen azoka izan da. Eguraldi oso kaskarreko egun batzuen ondoren, zapatuan giro zoragarria egin zuen, eta horren berora batu ziren Seber Altube plazan Arrasateko eta Euskal Herri osoko emakumeak euren jatekoak eta artisautza lanak erakustera. Guztira, 50 postu ipini zituzten. Horietatik bost bat Arrasaten bizi diren emakume etorkinek ipini zituzten –Ekuador, Bolivia, Kolonbia... bezalako herrietakoak–, eta Ekin emakume elkarteak talogintza postua ere izan zuen.

Aurten berritasun bat egon da: dantza erakustaldiak egon ziren. Batetik, Emakume Txokoan dantza afrikarrak ikasten dituzten emakumeek egin zuten saioa; horrez gain, dantza garaikidea eta sabel-dantza ere erakutsi zituzten. Emakume etorkinek protagonismo handia izan dute aurten, eta lau emakume boliviarrek hango dantza tradizionalak erakutsi zituzten.

Seber Altube beteta egon zen arratsaldeko lehen ordura arte azokarekin eta erakustaldiekin.

Bestetik, Arrasaten *Zu ere beharrezkoa zara!* lelopean, agerraldia egin zuten 300 bat lagunek eguenean.

**ANTZERKIA ERE BAI**

Ekintza ludikoak eta kulturalak ere izan ziren; besteak beste, Bergaran, *Neska politak, artasoro alaiak* antzezlana egin zuten atzo, domeka, Arantza Gurmendi aktore ezaguna protagonista zela.

Bestetik, eguenaz geroztik, ibarreko emakumeen elkarteek bazkari, afari edo txokolate-janarekin ospatu dute euren nazioarteko eguna.




**AGERRALDIA** Kale agerraldia eguenean Arrasaten. TXOMIN MADINA



**DANTZA** Sabel-dantza erakustaldia ere egin zuten Arrasaten. JOSETXO ARANTZABAL



**AZOKA** Barazki postu bat zapatuko azokan Arrasaten. JOSETXO ARANTZABAL

**HEZKUNTZA** > 'HIZKUNTZAK IRAKATSI ETA IKASTEKO MARKOA'

# Irakaskuntza sistema berria begi onez ikusten dute ikastetxeek

Datorren ikasturtetik aurrera ezarriko den irakaskuntza sistema berria aurkeztu du Hezkuntza Sailak

Debagoieneko ikastetxe publiko zein ikastoletako ordezkariek iritzi ona dute, oro har

**L.K.** > BERGARA

Irakaskuntza sistema berria oraintsu aurkeztu dute, eta, hasieran egon arren, ondo ikusten dute Debagoieneko eskola publikoetako eta ikastoletako ordezkariek.

Sistema berriak, *Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa* izeneko proposamenak, euskara ezartzen du hizkuntza nagusi moduan, eta trebetasun maila batzuk finkatzen ditu LHko eta DBHko ikasleendako. Atzerriko hizkuntzarako ere maila bat finkatzen du DBH bukatzen dutenendako.

A, B eta D ereduak desagertu egingo dira; Debagoienaren kasuan, sistema hori ez da ia existitzen. Antolaketa berria datorren ikasturtean hasiko dira ezartzen, baina oraingo sisteman ikasten hasiak direnek horrela jarraituko dute; hortaz, 10 urteren buruan egongo da sistema berria guztiz ezarrita.

**IRITZIAK**

Goieskolako, Debagoieneko Eskola Publikoko koordinatzaileak, Lourdes Ugaldek, esan du "eskola publiko moduan, oso ondo" iruditzen zaiela "eskola bakoitzak autonomia izatea bere plana finkatzeko". Gogorarazten du, helburu sistema berriarekin, "minimoak oso ondo neurtu beharko" direla, eta atzerriko ikasleek ekarri duten errealitate berria ere aipatzen du.

Hirugarren hizkuntza baten, B1 maila ziurtatu beharko dute ikasleek DBH amaitzerakoan, eta, Ugaldek esaten duenez, "hirugarren hizkuntzak gero eta pisu handiagoa du curriculumean, eta ikusi egin beharko da zelan txertatzen duen hizkuntza hori ikastetxe bakoitzak".

Iritzi ona azaldu du ere Joxerra Zubizarretak, Ikastolen Elkarteko presidenteak, eta orain arteko A, B eta D ereduak kentzeari ondo deritzo: "Ereduak alde batera uztea eta helburu espezifikoetaz hitz egitea garrantzitsua da", esan du, eta hauxe gaineratu du: "Badirudi neurtzeko modua ez direla ereduak izango, baizik eta ikaslea bera izango dela ardatza, eta horrela, ez dugu ereduen euskalduntzearen gainean hitz egingo; oso gauza zentzuzkoa da hori".

Hala ere, Zubizarretaren iritziz, "sistema bat-batean aldatzea astakeria litzateke; erdibide batzuk garatu behar dira".

**HEZKUNTZA**

# Deustuko master bat emango du Aita Mennik

**L.K.** > ARRASATE

Aita Menni Ospitaleak Deustuko Unibertsitateko Psikologia Klinikoko Master berria emango du, beste lau erakunderekin batera; hain zuzen, Neuropsikologia moduluaz arduratuko da. Horko eduki teorikoak aukeratuko ditu, eta Psikologiako tituludunei praktikak egiteko aukera emango die.

Elkarlan hori finkatzen duen hitzarmena joan den eguaztenean sinatu zuten ospitaleak eta unibertsitateak.

Psikologia Klinikoko masterra sortzeko, bost graduondoko titulu zahar batu eta gaurkotu dituzte. Psikologia titulua dutenei dago zuzenduta, eta praktikoa da, batik bat.

**ENPRESA** > DEBAGOIENDARRAK FERROFORMAN

# Ibarreko enpresak pozik itzuli dira aurten ere Ferroformatik

Ferroforma azokak 17. aldia egin du, eta ibarreko 17 enpresa izan dira aurten

Bezeroekin harremana eustea eta bezero gehiago erakartzea, helburu batzuk

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA
Hamazazpigarren aldiz egin dute Ferroforma azoka, BECen, eta Debagoieneko 17 enpresak parte hartu dute. Bukatu berri da hitzordua, eta ondo bukatu ere, kontsultatu ditugun enpresetako ordezkarien arabera: oro har, norberak bere helburuak bete ditu –batik bat, lehengo bezeroekin harremana berritzea, bezero berriak erakartzea eta harremanak sortzea, eta baita, jakina, produktu berriak erakustea.

**GEHIENAK, EDIZIO GUZTIETAN**
Debagoieneko hainbat arloko enpresak joan dira: sarrailagintza, burdineria, egurra lantzekoak, tresneria eta industria hornidurak, loretegiak… Gehienak edizio guztietan joaten dira. CVL enpresako Olaia Elkoro ordezkariak dioenez, "kontsulta asko izan ditugu, eta gure produktua ezagutarazi dugu. Gauza txar bat da erakusle txinatar asko zeudela; guretako lehia handia dira". Oro har, baina, Euskal Herriko eta Estatuko ekoizleak eta banatzaileak izan dira. Sufersako Unai Juaristik dioenez, "eskualdeko asko egon gara, bai; adibidez, gure hornitzaile asko zeuden".

Elgetako burdineria enpresa horrek lehenengo aldia izan du Ferroforman, eta "oso interesgarria" iruditu zaie.

**MUNDUKO BERRITASUNA**
Antzuolako Goizper Estatuko liderra da loratagiko lainoztagailuetan, merkatuaren %70arekin; horregatik, eurendako, bezero berriak egiteko baino gehiago, produktuak erakusteko aukera izan da azoka. Besteak beste, mundu osoan berria den lainoztatzeko ekipamendua aurkeztu dute Ferroforman.




**GOIZPER** Goizper enpresako postuan, Iñigo Formariz eta Ramon Redondo. GOIZPER

**ENPRESA**

## Mexikon, Elay eta Fagorrera bisita

Industria sailburuak Fagor Industrialen Mexikoko lantegia inauguratuko du

**L.K.** > BERGARA
Ana Agirre Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak Debagoieneko bi enpresa, Elay eta Fagor Industrial, bisitatuko ditu Mexikon emango duen astean. Are gehiago, Fagor Industrialek San Luis de Potosin daukan lantegi berria ere inauguratuko du sailburuak.

Euskal enpresa gehien dituen nazioarteko herrietako bat da Mexiko: besteak beste, 48 euskal enpresak merkatal ezarpenak dituzte han, eta 32k, lantegiak.

**EGUAZTENETIK AURRERA**
Etzi, eguaztena, Celaya herrira joango da Ana Agirre. Han bisitatuko du Antzuolako Elay taldeak duen egoitza. Automobilgintza sektorearendako osagaiak egiten ditu han. 1999az ezkero dago han, eta Guanajuatoko estatuan ezarri zen lehen euskal enpresa da.

Egubakoitzean, Oñatiko Fagor Industrialen egoitza inauguratuko du. Etxetresna elektrikoak egiten ditu han. 2005ean sartu zen Mexikoko merkatuan.

**ENPRESA** > FAGOR ETXETRESNA ELEKTRIKOEN 2006KO JARDUNALDIA

# Fagor Etxetresna Elektriko taldeak 12 milioi euroko irabaziak izan ditu 2006an

Plan Estrategikoko lehenengo urteko helburuak bete egin direla dio taldeak

Aurreko urtearen aldean, fakturazioa %15 igo zen 2006. urteko ekitaldian

**L.K.** > BERGARA
Fagor Etxetresna Elektrikoak taldeak 12 milioi euroko irabaziekin bukatu du 2006ko jardunaldia. Espainian eta Frantzian lidergoa sendotuta eta aurreikuspenak beteta, 2006-2009ko Plan Estrategikoko lehen urteko helburuak ere bete ditu taldeak. Hala jakinarazi zuten Javier Gantxegi taldeko Kontseilu Errektoreko presidenteak eta Txema Gisasola taldeko Zuzendari Orokorrak eguenean Bilbon.

**FAKTURAZIOA, HANDIAGOA**
Jardunaldian, besteak beste, 1.728,7 milioiko fakturazioa izan zuen taldeak, 2005ean baino %15 gehiago, eta herrialdeka honela banatuta: Espainian, 629 milioi; Frantzian, 575; Polonian, 95; eta Marokon, berriz, 32.

Jabier Gantxegik –erretiratu egingo dela jakinarazi du– esan zuen "sektore honetan, zortzi negozio arlotan lan egiten duen Espainiako multinazional bakarra gara". Nabarmendu zuen 100 herrialdetan baino gehiagotan dagoela.

Gisasolak, bestetik, berritasuna eta nazioarteko zabalkuntza nabarmendu zituen oraingo plan estrategikoko gako bezala.

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
K21
Arotz lanak orokorrean
•
Horma armairuak
•
Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

Jon Goikoetxea arrasatearrak, beste hamairu lagunekin batera, Iturrigorri Elkarlana eratu zuen otsailaren 11n. Hezur-muinen maileguak lortzea da euren helburua. Lagun baten beharrizana ikusita sortutako elkartea izan arren, guztiontzako lan egiten dutela diote, azken baten, inoiz ezin delako jakin inoiz emaile baten beharra edukiko dugun geuk ere.

**Jon Goikoetxea** > Iturrigorri Elkarlaneko kidea

# "Ezjakintasunaren arazoa dago; jendeak ikusten ez duena ez da existitzen"

**EDURNE BURGAÑA** > ARRASATE

**Odol emaile izatea gero eta gehiago zabaltzen doan bitartean, hezur-muinarekin ez da berdin gertatzen. Iturrigorri Elkarlana, besteak beste, emaile berriak lortzeko sortu dela azaldu du elkarte horretako kide Jon Goikoetxeak.**



Jon Goikoetxea, Arrasateko San Andres auzoan. JOSETXO ARANTZABAL

**Noiz sortutako elkartea da Iturrigorri?**

Elkarte hau lagun batzuen artean sortutakoa da. Otsailaren 11n sortu eta 13an erregistratu genuen. Hamalau sozio gara orain momentuan.

**Zeren harira sortutakoa da?**

Lagun batek alaba gaixo dauka, eta transplante baten beharra dauka. Lagunen artean hitz egiten hasiak ginen horren inguruan baina, urtarrilean, Fagorren, kontu horren harira, jendea sinadurak batzen hasi zen. Kontua da jendeak hezur-muin emaile egin nahi zuela baina Txagorritxuraino joan behar zirela. Horregatik, Arrasateko ospitalean, edo odola ateratzearekin batera, emaile horiek ere aukera edukitzea eskatzen zuten. Sinadura horiek batu eta Osakidetzako transplanteen sailera bidali genituen eskaera egiteko, baina, hasieran, ezetza eman ziguten.

**Zer egin zenuten ezetzaren aurrean?**

Elkartea sortzea erabaki genuen, batez ere, emaile berriak gehitzeko. Guztioi komeni zaigun kontua da. Gainera, ikusita Euskal Herrian beste emate batzuetan zelako erantzuna ematen duen jendeak, hezur-muinen emaileak bultzatzeko eratu genuen.

**Zer egin behar da hezur-muin emaile izateko?**

Lehendabizi, informazioa bidaltzen dizute etxera, arriskuak eta gainerakoak azaltzeko. Ados egonez gero, berriro deitu behar du norberak, eta Txagorritxura joan behar du. Han, odol analisi arrunt bat egiten dute; odol-ateratze arrunta, eta mediku batek guztia ondo ulertu duzun edo ez galdetzen dizu. Ados bazaude, sinatu eta listo.

**Sinatu eta gero, zer?**

Mundu osoko zerrenda batean sartzen dituzte norbere datuak, eta konpatiblea den gaixo bat agertu arte zain egon behar da; hori, agertzen bada. Agertzen den momentuan, berriro analisiak egiten dizkiote emaileari, ikusteko benetan gaixoarekin konpatibilitatea dagoela, eta orduan, emailearen adostasunarekin, hezur-muina ateratzen diote.

**Bi bide daude horretarako.**

Aferesia da bat. Dialisi antzeko bat da teknika hori. Aurreko astean, sendagaiak hartu behar dira, eta odola zelula-amez aberastea lortzen da horrela. Gero, ordu eta erdiko dialisi antzekoa egiten diote emaileari. Beste era, mokorretik bertatik, eta epidurala erabilita, hezur-muina ateratzea da. Azken baten, odol antzerako bat da hezur-muina; lehenengo odola, zehazki esateko, odola hezurretan sortzen da-eta.

**Hezur-muina zertarako erabiltzen da?**

Gaixotasun arraro asko dago, eta kasu askotarako erabiltzen dute hezur-muina. Leuzemia, akaso, ezagunena da. Baina, momentu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoan, 22 pertsona daude transplantea egiteko zain. Urtean, transplantatu barik, gutxi gorabehera, 50 pertsona geratzen dira, eta hori barik hil egiten dira. Estatuan, 900 bat pertsona hiltzen dira emaile egokirik topatu ez dutelako, eta urtean 2.500 hezur muin transplante egiten dira. Leuzemia da gaixotasun larriena, baina badaude beste batzuk ere.

**Hezur-muin emaile beharra dago, beraz.**

Kontua da batzuek senideen artean aurkitzen dutela konpatibilitatea duen emailea, kasuen %25ean-edo. Baina familiatik kanpo behar denean emailea, orduan sortzen dira arazoak.

**Estatu Batuetan, hedatuta dago hezur-muin emaile izatea.**

Estatu Batuetan, %1,30 pertsona emaileak diren bitartean, hemen, milatik bat. Inguruko pertsonen artean, guztiok ditugu arbaso berberak, eta euskaldunok aukera handiagoa dugu elkarrekin bateragarri izateko Estatu Batuetako emaile batekin baino. Baina emaile euskaldunak hain gutxi izanda, aukerak asko gutxitzen dira.

**Hezur-muin emaile izateko gertuan badago nora jo?**

Ez, ez dago, eta borroka egiten gabiltza hori aldatzeko. Elkarteko bi kide, aurreko astean, Eusko Legebiltzarrean egon ziren, alderdi guztiekin hitz egiten. Asmoa ospitale guztietan, behintzat, analisia egitea da. Gero, analisi genetikoa egiteko makinak bi lekutan bakarrik daude, Bilbon eta Donostian, baina lehenengo pausoa gerturatu nahi dugu. Horrek gauzak erraztu eta emaile gehiago egotea ekarriko lukeelakoan gaude.

**Odol-emaile izatea zabalduta dago. Hezur-muinarena izatea zergatik ez?**

Landu ez den alorra dela uste dut. Estatu Batuetan, 70eko hamarkadan hasi ziren horrelako ebakuntzak egiten. Baina Euskal Herrian eta Europan, ez da hainbeste landu. Jendea informatuz gero, emaile gehiago egongo litzatekeelakoan nago.

**Elkarteak zer egingo du informazioa zabaltzeko?**

Momentu honetan, erakundeen inplikazioa lortzeko lanean gabiltza. Euren elkartasuna behar dugu. Horretarako, Mankomunitateekin hitz egin dugu; Debagoieneko alkateei gutunak bidali dizkiegu, eta harrera ona eduki dugu. Osakidetzarekin ere bagabiltza lanean. Enpresa eta kooperatibetan ere bagabiltza laguntza eskatzen.

**Laguntza ekonomikoa ere eskatzen duzue, ezta?**

Analisi genetikoak egitea garesti samarra da, eta lortutako dirua horretara bideratuko genuke. Dirulaguntzez gain, ahalik eta gehien ezagutarazteko lanean gabiltza. Ezjakintasunaren arazoa dago; jendeak ikusten ez duena ez da existitzen.

**Helburu polita da zuena.**

Honekin hasi ginen lagun baten arazoa ikusi genuelako. Baina elkartea denontzako lan egiteko sortu da. Hutsune bat dago, eta bete egin behar da.

ZERTARAKO

**"Gaixotasun arraro asko dago, eta kasu askotarako erabiltzen dute hezur-muina"**

DATUAK

**"Euskal Autonomi Erkidegoan, 22 pertsona daude transplantea egiteko zain"**

INFORMAZIOA

**"Jendea informatuz gero, emaile gehiago egongo litzatekeela uste dut"**

## oharrak eta deialdiak

ARAMAIO
**> Ezker abertzaleak deitutako herri-batzarra**
Bihar, martitzena, kultura etxean, 19:00etan. Kirola, gazteria eta aisialdia aztertuko dituzte. Herritarren ekarpenak batzea da taldearen helburua.

DEBAGOIENA
**> Lankidetza ikastaroak udan, Hego Amerikan eta Afrikan**
Bakerako Lankidetza Batzarrak (BLB) Hegoaldeko herrialdeetako lankidetza ikastaroak antolatu ditu udarako, Guatemalan, Hondurasen, Marokon, Senegalen, Tunisian, eta abar. Argibideak, 94 444 32 07 telefonoan edo *www.acpp.org* helbidean.

DEBAGOIENA
**> Korrikaren kilometroak erosteko aukera**
Korrikaren 15. ekitaldia martxoaren 23an iritsiko da Debagoienera. Gatzagara 23:35ean helduko dela aurreikusita dago. Martxoaren 20ra bitartean izango da kilometroak erosteko aukera, 943 77 03 69 zenbakira deituta.

BERGARA
**> Internet hasiera ikastaroak, doan**
Bergarako KZgunean, martxoaren 19tik 30era, goizez (11:00-13:00) edo arratsaldez (16:00-18:00). Argibideak 943 76 73 24 telefono zenbakian jaso ditzakezue.

ARAMAIO
**> Dirulaguntzak eskuratzeko deia**
Udaleko Kultura eta Euskara sailek urteko dirulaguntzak banatuko dizkiete herriko taldeei kirol, jai, kultura... eta bestelako ekintzak antolatzeko. Martxoaren 20a da mugaeguna.

ARRASATE
**> Abaroa erretiratuen elkartearen batzarra**
Urteko batzar orokorra egingo dute eguenean, martxoaren 15ean, 17:00etan.

BERGARA
**> Erretiratuen mendi irteera martxoaren 22an**
Kanpanzarrera, Besaidera eta Udalara joango dira San Joxepe elkartekoak martxoaren 22an. Bazkaria Udalan egingo dute. Izenematea (20 euro) erretiratuen elkartean. Argibide gehiago 943 76 30 09 telefono zenbakian jaso ditzakezue.

OÑATI
**> Spinning monitore agiria lortzeko ikastaroa**
Martxoaren 17an, 09:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era, Zubikoa kiroldegian. Izena emateko, jo ibarreko edozein herritako kirol zerbitzura.

DEBAGOIENA
**> Kilometroen aldeko otarreak atera dituzte**
Kilometroak 07ko antolaketa batzordeak produktuez beteriko otarreak zozketatzen ditu. Debagoieneko taberna, denda eta bestelako komertzioetan jarri dituzte txartelak salgai, 2 euroren truke.

ELGETA
**> Kontsumitzaileon eskubideen gaineko ikastaroa KZgunean**
*Kontsumitzailea sarean* da ikastaroaren izena. Etzi, eguaztena, egingo dute, 11:00etatik 13:00etara, eta izenematea zabalik dago.

BERGARA
**> Eski irteera antolatu du Bergarako Pol-Pol Mendizale Taldeak Aste Santurako**
Aste Santuan egin ohi duenez,apirilaren 6tik 14ra bitartean Alpeetara, Val Thorens-era, irteera antolatu du Pol-Polek. Argibide gehiago, astelehenetik eguenera, 19:00etatik 20:30era, Pol-Polen bulegoan (Komenio kalean), 943 76 48 51 telefonoan edo helbide elektroniko honetan: *pol-pol.menditaldea@hotmail.com*.

943 25 05 01
goienkaria@goiena.com

ANTZUOLA
**> Erretiratuen irteera Zarautzera, hilaren 22an**
Martxoaren 15ean edo 16an eman behar da izena, 18:00etatik 19:00etara. 10 euro da.

ESKORIATZA
**> 1957an eta 1958ko urtarrilean eta otsailean jaiotakoen irteera**
Udan, ekainaren 9an egingo dute irteera, Arratiara. Argibideetarako, deitu 619 21 97 53 edo 943 71 50 42 telefono zenbakietara.

ARRASATE
**> Mendiko eski irteera egingo du Besaidek**
Martxoaren 17an eta 18an, Saint Laryn (Frantzia) mendiko eskia egiteko irteera antolatu du Besaidek. Izenematea zabalik dago euren egoitzan, 19:30-20:30, bihar, martitzena, arte.

ARRASATE
**> 1940an jaiotako emakumeen bazkaria**
Martxoaren 31n, Arrasateko batzokian bazkalduko dute. Aurretik, meza parrokian. Izenematea (20 euro) Zabaleta lurrindegian.

BERGARA
**> Olio-dastatze ikastaroa hilaren 28an eta 29an**
Martxoaren 28an eta 29an, Blas Melgarejo eta Andres Martos olio ekoizleek olio-dastatze ikastaroa emango dute. Argibideak, kultura etxean (943 77 91 58 da hango telefonoa).

## etxeko leihotik



**Leire Kortabarria**
ASTELEHENEKO GOIENKARIAko erredaktore burua

# Futbola, gustatu ez arren, ze ondo datorren

Hara: niri ez zait futbola gustatzen. Batere ez. Aspertu egiten nau eta ez diot graziarik aurkitzen. Bost axola dit zeinek irabazi duen Liga, Kopa edo Kopaondokoa edo zein den –oraingoan– munduko jokalaririk onena. Telebistan eta, zehatzago esateko, telebistako albistegietan edozein neurritik kanpoko denbora eskaintzen diotela deritzot, eduki *serioekin* alderatuta. Eta amorrua ematen dit talde indartsuen arteko partidu bakoitzari *historikoa* deitzen dioten bakoitzean. Frantziar Iraultza eta Berlingo Harresia bota zutenekoa bezala, aizue!

Ba, hori guztia egi-egia izanda ere, sinistuko didazue halako lasaitu bat hartzen dudala telebistan futbola dagoela ikusten dudan bakoitzean? Halaxe izan zen zapatuan, partidu historiko horietako enegarrena ematen zutela ikustean. Debagoiendar askok ikusiko zuten eta disfrutatuko zuten horrekin. Nire sentsazioa da futbola dagoen bitartean, ez dagoela dena galduta; arazoak nonahi ditugu, eta bizitza gogorra da eta izango da, baina oraindik hori une batez ahaztu eta beste guztitik kanpo dagoen mundu intranszendente baten sartzeko gaitasuna dugu.

**"Halako lasaitu bat hartzen dut telebistan futbola dagoela ikusterakoan"**

Deskonexioa, zein gauza ederra!

**> Kulturate** bertatik **bertara ikusteko aukerarik ez dut izan, baina badut, bai, bisita egiteko gogoa. Eraikina polita da berez, eta eduki onak pareko edukitzaila duenean, emaitzak ona behar du derrigorrez.**

**> Antzinako eraikinak** –hauek bai, historikoak– **zelan gorde badakigu ibarrean. Arrasateko kultur etxe berria da azkeneko adibidea. Eraikinak ere, bizitzaz bete ezean, hil egiten dira-eta.**

## debagoiendarrak kanpoan

**Ane Loidi** > Aretxabaleta

# "Donostiak kultura eskaintza zabala dauka: zinema, antzerkia, musika..."

ARANTZAZU EZKIBEL > ARETXABALETA

**Ane Loidi aretxabaletarra Donostiako Alde Zaharrean bizi da azken 14 urteetan. Euskal Filologia ikasketak amaitu zituenean joan zen Gipuzkoako hiriburura, lanera. Jon Antxia senarrarekin eta alabekin bizi da Ane Loidi Donostian.**

**Zenbat urte dira Aretxabaletatik Donostiara joan zinela?**
Orain 14 urte etorri nintzen Aretxabaletatik hona, lanera eta bizi izatera. Beraz, badira urte batzuk Gipuzkoako hiriburuan bizi naizela.

**Baina, aurrez ere, etxetik kanpo bizi izandakoa zara.**
Bai, hala da. Lehenago, Gasteizen bizi izan nintzen, ikasle etxebizitza batean; Euskal Filologia ikasketak egitera joan nintzen Gasteizera. Behin ikasketak bukatu nituenean, Donostian hasi nintzen lanean, Euskaltzaindian, Hiztegigintzan. Eta hemen jarraitzen dut.

Euskal filologia ikasketak egin nituenean, ez nekien herrian bertan izango nuen lana edo kanpora irten beharko nuen. Nire ikasketekin, ematen du irakaskuntzan lan egiteko aukera bakarrik dagoela, baina ez da hala.

**Zer egiteko aukera ematen dizu Donostia bezalako hiri batek?**
Donostian, kultura eskaintza zabala dago: zinema, antzerkia, musika... hainbat ikuskizunez gozatzeko aukera ematen du hiriak. Ni, izatez, oso antzerkizalea naiz, baina, azkenaldian, umeak direla-eta, ez naiz gura beste joaten antzerkira.



GOIENKARIA

**Lanera Donostiara joana.**
Aretxabaletarra da eta Euskal Filologia ikasketak egin zituen; orain, Euskaltzaindian ari da lanean.

**Zein duzu Donostiako toki gustukoena?**
Urgull oso gustuko dut; baita Paseo Berria ere. Bi leku horietan, askotan ibiltzen naiz paseoan, familiarekin.

**Zenbatean behin etortzen zara Aretxabaletara?**
Hiru astean behin edo 15 egunetik behin etortzen gara etxera. Azken baten, Aretxabaletan ditugu betiko lagunak eta familia. Zapatuan edo domekan etortzen gara, eta aste bukaera pasatzen dugu; noizean behin, herrira bisita egitea ezinbesteko izaten da.

**Debagoieneko jende asko izango da Donostian. Baduzue elkartzeko ohiturarik?**
Bai, ni noiz edo noiz elkartu izan naiz Oñatiko eta Aretxabaletako beste lagun batzuekin. Aurrez ezagutzen nituen lagunak dira.

**Aretxabaletako zer igartzen duzu faltan Donostian?**
Batez ere, mendiak igartzen ditut faltan; paisaia. Donostian itsasoa daukagu, baina horko mendien falta igartzen dut.

**Eta zer ekarriko zenuke Aretxabaletara?**
Bidegorri sarea. Nik, etxetik lanera joateko, beti erabiltzen dut bizikleta, eta bizikletaz mugitzeko modu egokiena bidegorri sarea da; alde horretatik, Donostia oso ondo antolatutako hiria dela iruditzen zait.

Bestalde, ezinezkoa den arren, Donostiak duen itsasoa ere eramango nuke gure herrira.

**kale inkesta**

# Oinezko bezala, kaletik zoazela, errespetatzen dituzu zirkulazio-arauak ?



**Jone Albeniz**
Ikaslea
Bergara

Semaforoak, askotan, ez ditugu errespetatzen, eta noizbait izan dugu susto txikirik, baina, gehienetan, gurutzatzen dugu bidea behar den lekutik. Isunak ipiniko balituzte, akaso errespetatuko genituzke.



**Yasmina Trigueros**
Ikaslea
Bergara

Normalean, bai. Errepidea zebra-bidetik gurutzatzen dut, eta semaforoa errespetatu; presaka baldin banabil, batzuetan gorrian ere pasatzen dut bidea. Gidaria banintz, gehiago errespetatuko nituzke arauak.



**Gonzalo Santos**
Langilea
Irun

Errespetatzen ditut. Saiatzen naiz semaforoa berdean dagoela gurutzatzen bidea, eta, betiere zebra-bidetik. Gidatzen noala norbait bidera leku ezegokitik aterako balitzait, sekulako disgustua hartuko nuke.



**Mikel Andoni Olabarria**
Langilea
Bergara

Bai: zebra-bidetik gurutzatzen dut, semaforoa berde jarri arte itxaron... Umeei erakutsi egin behar zaie. Autoan noala, ikusten dut oinezko askok ez dituztela errespetatzen arauak, ezta auto-gidari askok ere.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 02

## goienkaria@goiena.com

ARRASATE

**> Santa Barbarako dragoia, zikin-zikin**

Arrasatear bat guregana zuzendu da bere herriko ikurretako bati egin diotena salatzeko. Hain zuzen, Santa Barbara parkean dagoen dragoiaren irudia "denetariko margoz zikinduta" ikusi zuen joan den astean. "Benetan ze kolorekoa zen zaila zen asmatzen, zeharo estalita zegoen-eta", diosku gure irakurleak. Argi dago askok ez diotela errespeturik ezta herriko ikurrari ere.

OÑATI

**> Biribilean, lurjausiaren ondorioak**

Haizetea eta euri-jasak joan dira, baina euren arrastoak gurean ditugu oraindik. Hori diosku oñatiar batek: saihesbidetik herrira edo Arantzazura joateko biribilean oraindik eguraldi txarrak eragindako lurjausi txikiaren arrastoak daudela dio, alegia, biribileko errepide zati bat lurrez estalita dagoela. "Gainetik ez pasatzeko, biribilera arrimatu behar dugu. Eta zer esango dute kamioilariek?", galdetzen du.

BERGARA

**> Espaloiko losak konpondu dituztela-eta**

"Hainbat kaletan, oinezkook arretaz ibili behar izaten dugu, losa asko solte egoten dira-eta. Azkenaldian, batzuk, behintzat, konpondu dituztela ikusi dut, eta eskertzekoa da. Hala ere, sarri gertatu izan da konpondu eta gutxira berriro solte ikustea. Gonoraz konponduko ote zituzten oraingoan?", dio bergarar batek.

**usteak uste**

**Irati Agirreazaldegi**

# Argi ibil gaitezen haize boladekin

Haizeak bidali nau handikan honuntza; lanak Debagoienera nau bultza. Ni goruntza eta ibaia behera, lohi kolorez itsasoruntza.

Igogailuan ere gora nik eta behera, eta elkarrizketarako gai eguraldia bera. Iritsi naiz etxera eta, afaria gertatzerako, haizea sartu da gurera, eta iluntasuna, haize boladarekin batera.

Piztu dugu kandela, jan dugu afaria, epela. Eta ohi baino goizago ohera gindoazela... bete da Murphyren erregela.

Argia piztu da eta era berean nire buruan hamaika duda.

Argindarrik gabe bizitzea ez da erreza. Etxean larri bagabiltza, lantegietan pentsa. Argirik gabeko egunen ostean, etorkizuna iluna ez, beltza.

Bihar ere argituko du egunak, ea eguzki izpi diren haize eta euri laino ilunak.

**zorroztailea**



**Juan Luis Azkarate**

# Autoaren (in)kultura

"Arrasaten egunero ibiltzen diren 13.000 ibilgailuek, ilaran jarriz gero, 65 km-ko luzera edo 104.000 $m^2$-ko azalera beteko lukete. Alkateak adierazi zuenez, "edo kotxearen kontra egiten dugu edo berak txikitu egingo gaitu" (…). Ibilgailuaren aparkatzearen kostua jabearen kontutik izan beharko da".

El Diario Vasco > 2007-03-08


ALTO DEBA
«O peleamos contra el automóvil o nos va a aplastar», advierte el alcalde
BUZÓN

Azken aste hauetan Arrasaten ez da giro, peatonalizazioa dela eta. *Pásalo* metodoaren bidez deitutako hiritar askotxok bi kale agerraldietan parte hartu dute. Oso interesgarria iruditu zait protestaldiak antolatzeko modu berri hau, hiritarrek eurek modu guztiz espontaneoan; baina, orokorrean, eta akatsez akats, Arrasateko Udala abian jartzen ari den peatonalizaziorekin ados nagoen bezala, ez nator bat, oro har, protestaldi hauen izpirituarekin. Autoa modu egokian erabiltzen saiatzen naizen bezala, sekula ez nuke parte hartuko autoaren aldeko mobilizazio batean.

Autoaren erabilera sistematikoaren eta autoaren kulturaren kontrako neurriak etorkizunean areagotuko direlakoan nago, hemen eta Singapurren. Londresen, esaterako, ordaindu egin behar da hiriaren erdialdean autoz sartu ahal izateko, eta Milanen bakarrik erabili daiteke txandakako egunetan (gaur, matrikulako azken zifra bikoitia duten autoek; eta bihar, bakoitiek). Autoendako kalte barik peatonalizaziorik ez dagoenaren seinale.

**"Sekula ez nuke parte hartuko autoaren aldeko mobilizazio batean"**

**"Aldaketa sakonak beharko dira autoen presentzia txikiagoa izan dadin"**

Hori bai, Udalaren aldetik zenbait akats ere egon dira. Batetik, eta beti bezala, komunikazioak huts egin du; Garibai automobil partikularrendako ixtea oso traumatikoa izan da eta lehenago jendeari hobeto azaldu beharra zegoen. Bestetik, Garibai itxi aurretik, *Etxe Txikien* kalearen bi norabideak zabalik egon behar zuketen; eta Olandixoko tunelak bukatuta egoteak ere asko lagunduko luke. Bestela, deskongestioa erdiko gune batzuetan, bai, baina kongestioa dakar beste leku batzuetara.

Neurri koertzitibo hauetaz aparte, kultura aldaketa sakonak sustatu egin beharko dira, herrietan autoaren presentzia txikiagoa izan dadin.

Adibide bat jartzearren, Garagartzatik etortzen diren langileen automobil-ilarak, bakoitza ibilgailu batean eta denak ordu berean ikusten dudan bakoitzean, pena eta amorrua sentitzen dut. Eta eskerrak batzuk kooperatibistak diren.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Erredakzioa** Mireia Bikuña, Arantzazu Ezkibel, Irati Agirreazaldegi, Edurne Burgaña **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Alex Azkarate **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Miren Agirre **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

# Herriak

**Arrasate** > 10 **Bergara** > 11 **Oñati** > 12 **Aretxabaleta** > 13 **Eskoriatza** > 13
**Antzuola** > 14 **Aramaio** > 14 **Elgeta** > 14 **Leintz Gatzaga** > 14




**> ARRASATE**
Korrikako kilometroak erosteko aukera dago, 11 egun besterik falta ez direnean **> 10**



**> BERGARA**
Hasi berri dira Ibargarai eta Espoloia batuko dituen errepideko lanak egiten **> 11**



**> ARETXABALETA**
Zaharren egoitza egiteko behar diren lurren birkalifikazioaz hitz egingo dute osoko bilkuran **> 13**

**BERGARA-ANTZUOLA** > EUSKADOUR GASBIDEA

# Euskadour gasbidea Bergaratik sartuko da gure ibarrera, Irunerako bidean

**LOTURA**
Hegoaldeko eta Iparraldeko sareak lotuko ditu

**INAUGURATUTA**
Lehen faseko lanak ekainean inauguratu zituzten

**BIGARRENA**
Bergaratik Irunera zatiko gasbidea bigarren fasekoa da



**ELORREGI** Aierdi baserritik gora dagoen zentraletik hasiko da gasbide berria, Iruneraino doana. JOSETXO ARANTZABAL

**UBANE MADERA** > BERGARA

Naturgas Energia eta TIGF –Total Infraestructures Gaz France– enpresak Euskadour izeneko gasbidea eraikitzen dabiltza. Proiektu horren helburua Hegoaldeko eta Iparraldeko sareak lotzea da (2010), eta inguruko herrietako eta Europako hegoaldeko gas hornitzea ziurtatzea. Bi noranzko dituen lehen gasbidea izango da Euskadour. 180 milioi euro kostako da.

**BIZKAITIK ELORREGIRA**

Bilboko portutik abiatuko da, han dagoen Bahía Bizkaia Gas erregasifikadoratik, hain zuzen; eta Frantziako Lau-ssagnet herrira iritsiko da, han lur azpian duten biltegi batera, Europa hegoaldeko gas biltegi handienera, hain zuzen ere. Bidean, Bergara, Antzuola eta Oñatiko lurrak zeharkatzen ditu gasbide horrek. Bizkaitik Hirutontorreta menditik iristen da gurera, Elorregiko zentralera.

**BERGARA-IRUN**

Hala, orain egin behar dutena hauxe da: Elorregitik hasi eta Iruneraino dagoen gasbide zatia bikoiztu. Euskadour proiektuaren bigarren fasea litzateke hori. Izan ere, gaur egun, orokorrean, energia mota askoren eskaera –argindarra, gas naturala...– dezente handitu da gure gizartean, eta, gasbidea bikoiztuz gero, Elorregitik Irunera dauden herriek ziurtatuta izango dute etorkizunean gas naturalaren hornitzea.

**HEMENGO IBILBIDEA**

Elorregin, Aierdi baserritik gora dagoen gas zentraletik –Sociedad de Gas de Euskadi– abiatuko da gasbide berria. Bergarako lursailetan sartuko da handik. Gaur egun eraikita dagoen gasbidearen ondotik egingo dute gasbide berriaren ibilbidearen zatirik handiena.

Bergarako lurretatik, 568 metro egingo ditu eta, udalerriaren ekialdetik, Bergara eta Oñatiko udalerrien mugaren ondotik, Antzuolarako bidea hartuko du.

Antzuolan, beste 500 bat metro egingo ditu, Lizargarate, Koroso eta Arrola inguruetatik, Oñati eta Antzuola arteko mugatik gertu; are gehiago, tarteka, Oñatiko lursailetan sartuko da. Udalerria zeharkatu ostean, berriz, beherako bidea hartuko du, Legazpirantz, handik Irunerantz jarraitzeko.

**ARROLAMENDIKO TUMULUAK**

Antzuolako ibilbide horretan, gasbide berriak Arrolamendiko tumuluak dauden lekua zeharkatzen du, proiektuaren arabera. Hori ikusita, Antzuolako Hirigintza Sailak jakinarazi du Antzuolako Udalak ahalegin berezia egin duela tumulu horiek errespeta ditzaten. Halaber, gaineratu du, eraikitze lanen arduradunek adierazitakoaren arabera, hala egingo dutela.

**GASBIDEAREN EZAUGARRIAK**

Gasbidearen ezaugarriei dagokienez, berriz, orain dagoen gasbidea baino handiagoa izango dela adierazi du Naturgasko prentsa arduradun Iñaki de Rojok: "Orain dugun azpiegiturak 16 hazbeteko diametroa du; hodi berria, berriz, 26 hazbetekoa izango da; horregatik, oraingoaren halako bi gaitasun izango du, eta egokia izango da inguruko udalerriak gasez hornitzeko. Gainera, Europako hegoaldera gasa garraia dezake, gasik gabe gera ez daitezen".

Obren hasiera datari dagokionez, berriz, Iñaki de Rojok esan du, "aurreikuspenen arabera, lehen zatiko obrak lehen seihilekoan hastea espero" dutela; baina hori "oraindik konfirmatzeko" dagoela ere esan du.

**LURJABEEKIN BATZARRA**

Bestalde, gasbidea sartzeko, zanga bat zabalduko dute eta, gasbidea sartu eta gero, atzera ere estaliko dute. Jakina, lursail publiko zein pribatuak zeharkatuko ditu zanga horrek. Horregatik, martxoaren 19an eta 20an, Madrilgo Industria eta Energia Ministerioko ordezkariak Bergaran eta Antzuolan izango dira.

Bergaran, Udalarekin eta 24-25 lurjaberekin elkartuko dira, martxoaren 19an. Antzuolan, besteak beste, Udaleko ordezkariekin elkartuko dira, lurren desjabetzen gaineko aktak jasotzeko.

DATUA

**87**

**KILOMETRO**

Bergara-Irun zatiak 87.294 metro izango ditu guztira. Horietako 568 Bergaratik pasatuko dira, eta beste 500, Antzuolatik. Oñatiko zenbait lursail ere zeharkatuko ditu.

ZENBAIT DATU

## Guretik pasatzen den zatiaren gaineko ezaugarriak

Elorregitik Irunera eraiki behar duten gasbide berriak 26 hazbeteko diametroa dauka; orain artekoak baino 10 hazbete gehiago. 400.000 newton/orduko emaria hartuko du. Abiadura, berriz, 30 metro segundokoa izango da, asko jota. Egin behar duten gasbide berriaren aurrekontua 75 milioi eurokoa da. Ibilbide osoak (Bergara-Irun) 87.294 metro izango ditu. Horietatik 568 Bergaratik pasatuko dira, eta beste 500 inguru, Antzuolatik. Gero, EAEko honako udalerriak zeharkatuko ditu: Legazpi-Zumarraga-Gabiria-Ormaiztegi-Idiazabal-Olaberria-Beasain-Lazkao-Ordizia-Zaldibia-Arama-Baliarrain-Orendain-Alegia-Altzo-Leaburu-Lizartza-Gaztelu-Belauntza-Berrobi-Berastegi-Ibarra eta Tolosa. Bergara-Irun gasbidea Euskadour izeneko gasbidearen bigarren zatia da.

**EUSKARA**> KORRIKA

# Oraindik eros daitezke Korrikako kilometroak

Martxoaren 23an iritsiko da, 01:00etan, Aretxabaletatik; egunean bertan, afaria egingo dute Uarkapen

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Geroago eta gutxiago falta da Korrika gurera iristeko. Martxoaren 23an, 01:00etan hartuko dute lekukoa Arrasateko ordezkariek, Aretxabaletaren eskutik. Eta gero, honako ibilbidea egingo du: Takolo-Bolintxoko biribilgunea (Foruen Plaza)-Udala plazako biribilgunea-San Frantziskoko biribilgunea-alde zaharra-Zerkaosteta-Garibai, eta handik Oñatirako bidea hartuko du.

**22, SALDUTA**
Oraingoz, 22 kilometro erosi dituzte Arrasateko erakunde, elkarte eta bestelakoek. Aurreko ekitaldian, berriz, 30 kilometro erosi zituzten.

Horregatik, antolatzaileek jendea animatu gura dute kilometroak erostera. Martxoaren 20ra arte zabalik izango da horretarako epea. Kilometroren bat erosteko interesa duenak Erdu-AEKra jo behar du. Han, kontu korronte zenbakia emango diote, kilometro bakoitza kostatzen den 380 euroak sartzeko.

Bestalde, Korrika Lagunak egiten ere badabiltza Arrasateko saltoki eta negozioen artean. Korrika Laguntzaile izateko aukera ere badago. AEKra jo behar da horretarako.

**KILOMETROEN BANAKETA**
Kilometro bakoitza erosleen artean zela banatu martxoaren 20tik aurrera jakinaraziko dute. "Zozketa bidez edo zela egin ikusi egin beharko da", azaldu du Korrika 15.eko Debagoienko arduradun Oskar Elizburuk.

**150 LAGUNENDAKO AFARIA**
Bestalde, hark jakinarazi du Korrika datorren gauean bertan afaria egingo dutela, Uarkapen. 150 lagunendako lekua izango da, eta afariaren prezioa 15 euro da. 21:00etan da hitzordua. Bertsolariak eta trikitilaiak ibiliko dira afaria girotzen. Txartelak Monten, Iratin, Uarkapen, AEDn eta AEKn eskura daitezke. Martxoaren 20a baino lehen erosi behar da txartela.



**KULTURBIRA** *Gu ta gutarrak* ikuskizuna egin zuten joan den asteburuan, Kulturbiraren barruan. JOSETXO ARANTZABAL



**MAKETA** Proiektuaren maketak tunela zelakoa izango den erakusten du. A.G.

**AZPIEGITURAK** > MENDEBALDEKO SAIHESBIDEA

# Aurten deituko dute Olandixoko tunelaren obrak egiteko enkantea

Gipuzkoako Diputazioak oraingo astean onartu du saihesbide horren trazatu proiektua

**U.M.** > ARRASATE
Aurrera doa Arrasateko mendebaldeari arnasa eman behar dion saihesbidearen proiektua. Asteon, Gipuzkoako Foru aldundiak baiezkoa eman dio haren trazatuari. Halaber, iragarri dute Olandixoko tunela egiteko obrak aurten bertan aterako dituztela enkantera.

**TUNELA ETA ZUBIA**
Proiektuaren arabera, Arrasate mendebaldeko saihesbidea Aretxabaleta eta Arrasate arteko mugan hasiko da, Aretxabaletarako bide zaharretik gertu; hain justu ere, GI-3920 eta GI-2620 errepideen arteko bidegurutzearen gainean. Han, biribilgune berri bat eraikiko dute, GI-627 errepideak duen zubiaren ondoan. Modu horretan, Olandixoko tunelak lotura zuzena izango du Arrasateko ekialdeko saihesbidearekin eta Aretxabaletarako bide zaharrarekin.

Beraz, Aretxabaleta eta Arrasate arteko mugatik, han parean, Chapimeren atzeko aldean, dagoen mendirantz joko du. Hasierako zati horrek 860 bat metro izango ditu.

Gero, mendian sartuko da, tunelean. Tunel hori 830 metro luze izango da. Bi zirkulazio lerro izango ditu, eta mendi guztia zeharkatuko du, Aramaio bailarara iritsi arte.

Han, zubi bat eraikiko dute, tunela menditik atera eta Uribarri auzora irits dadin. Modu horretan, GI-2620 errepidearekin bat egingo du. Hain justu ere, orain Garaia eraikitzen dabiltzan gune hartara iritsiko da Olandixoko tunela eta, errepidearekin bat egiteko, biribilgune bat eraikiko dute.

Proiektu osoak 35,4 milioi euroko aurrekontua dauka, eta obrak hasi eta 24 hilabeteko epean bukatuko dituztela aurreikusi dute.

**ZERBITZUAK** > BIHOTZA BABESTEKO

# Desfibriladoreak ipiniko dituzte gune publikoetan

EBk egindako proposamena onartu dute; orain hori praktikara zela eraman zehaztea falta da

**U.M.** > ARRASATE
Ezker Batuak abenduan proposatu zuen Arrasateko zenbait gune publikotan desfibriladoreak ipintzea. Datuen arabera, garrantzi handia du bihotzeko krisialdi batean azkar erantzuteak, bizitza salbatzeko aukerak handiagoak direlako.

Beraz, ipini egingo dituzte Arrasaten bihotza berpizten laguntzeko gailu horiek. "Ipintzeko zenbait leku proposatu genituen: kiroldegia, udaltzaingoa, Iturbide, BAZ... hainbat udal eraikinetan", adierazi du Udaleko Gizarte Sailak; baina hau ere gaineratu dute: "Ipiniko dituztela onartu dute, baina zenbat erosi, non ipini eta formazioa zeinek egingo duen zehaztea falta da". Izan ere, desfibriladorea erabiltzeko gutxieneko ezagutza batzuk erakutsi egin behar dizkiote ipiniko diren lekuetako ordezkariren bati.

> ZAHARTZAROA

### Mallorcarako bidaiarako izena emateko epea zabalik dago oraindik

Maiatzaren 3tik 15era bitartean, Mallorcara joateko txangoa antolatu dute Abaroa egoitzakoek. Pertsonako 400 euro ordaindu beharko da, eta 150 euro aurreratu egin behar dira. 12 gau egingo dituzte Balearretako irla hartan, hiru izarretako hotel batean, pentsio osoan. Hori bai, logela bikoitza duenak eguneko 12 euroko gehigarria ordaindu behar du. Arrasatetik autobusez joango dira Bilboko aireportura.

Oporralditxo horretan joateko izenematea guztiz bete arte zabalik izango dela jakinarazi dute; baita ere, jarlekuak izenematearen ordenaren arabera emango dituztela.

> UDALA

### Babes ofizialeko etxebizitzak osokoan aztertuko dituzte

Gaur, astelehena, osoko bilkura berezia egin behar du udalbatzarrak. 09:00etan hasiko da. Aurreikusitako gaien arabera, besteak beste, Cerrajera gunean babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraikitzeko lehiaketa aztertuko dute.

Errentan emateko babestutako etxebizitzak eraiki gura ditu Udalak Cerrajera gunean, La Caixak eraiki behar dituenaren modukoak. Halako 216 eraikitzeko asmoa dute. Hala, asteleheneko osoko bilkura berezian, etxe horiek eraikitzeko lehiaketa arautu behar duten baldintzen agiria onartu edo ez erabaki beharko dute.

> POLITIKA

### Jarrai, KAS, Haika eta Segiren logoa dela-eta, Ertzaintzaren abisua

Ferrerias kaleko seigarren zenbakian bada plaka bat Jarrai-Haika-Segiren 25. urteurrena gogorarazten duena. *25 urte borrokan tinko* dio, Jarrai, KAS, Haika eta Segiren logoekin batera. Bada, atari horretako buruak gutun bat jaso du Bergarako ertzain etxetik, esanez erakunde horiek "legez kontrakoak deklaratu dituztela, talde edo erakunde terroristako atal moduan". Beraz, plaka "berehala" kentzeko esan diote atariko buruari, "bestela, eraikin horren ordezkari moduan, eta atarteak plaka erakusten jarraituz gero, terrorismo delitu kontsidera dezaketela" ohartarazten dute.

**OBRAK** > UDA BAINO LEHEN ZABALDU NAHI DUTE

# Espoloia eta Ibargarai arteko errepide berriarekin hasi dira

Autoak jaitsi egingo dira kale berritik, eta Arrizuritik igo, ziurrenik

Bistako adreilu gorriak dituen etxe bakarra ere bota egingo dute lanak bukatu aurretik



**ERREPIDEA** Espoloia eta Ibargarai kaleak errepide batek batuko ditu. O.E.

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Espoloia eta Ibargarai kaleak lotuko dituen errepide berria egiten hasi dira. Ibargarai kalean bukatzear dauden bi etxebizitza blokeen urbanizazio lanen barruan dago errepide berri hori. Azpeitiko Xaxarki enpresa ari da lanak egiten eta, hango ordezkarien esanetan, uda baino lehenago zabaldu nahi dute.

**IBILGAILUAK, GOITIK BEHERA**
Errepideak izango duen noranzkoa zehazteke dute, baina ibilgailuak goitik behera, Espoloitik Ibargaraira, pasako dira, ziurrenik; Arrizuriagatik igoko dira, eta errepide berritik jaitsiko dira.

Errepide horrez gain, baina, aldaketa gehiago ere egingo dituzte inguru horretan. Arrizuriaga parke ondoan dagoen bistako adreilu gorriak dituen etxe bakarra, adibidez, bota egingo dute, eta oinezkoendako bidea egingo dute. Horrekin batera, Arrizuriaga parkea bera zabalik egongo den edo ez oraindik erabakitzeke dutela esan du Josean Etxeberria Hirigintza zinegotziak. Horko jauregian egongo da, bestalde, UNED ikastetxea, obrak egiten dauden bitartean, eta herriko liburutegia hor egiteko asmoa ere badu Udalak. Bitartean, Sukiak eta Goituk datozen asteotan entregatuko dituzte Ibargariko etxe horietako giltzak.

> LANPOSTUA
### Aldi baterako administrari laguntzailerako deia

Bergarako Udalak deia zabaldu du administrari laguntzaile lanpostu bat betetzeko. Ongizate zerbitzuetan behar dute langile hori. Lehiaketa-oposizio bidez kontratatuko dute pertsona hori, eta lan poltsa ere osatuko dute, bide batez. Eskatzaileak eskola graduatua, LH 1 edo parekoa den titulua eduki behar du, eta baita hirugarren hizkuntz eskakizuna ere.

Martxoaren 24ra arte dago epea zabalik eskaerak aurkezteko. Oinarriak udaletxeko idazkaritzako bulegoan edo helbide honetan daude: *www.bergara.net*.

> MUSIKA
### Gasteizko udal musika banda dator hilaren 25ean

Gasteizko udal musika banda dator Bergarara martxoaren 25ean. Bergarako bandak gonbidatuta dator. Izan ere, Bergarako udal musika bandak 175 urte betetzen ditu aurten, eta ekitaldiak antolatu ditu urteurren hori ospatzeko: adibidez, Bilboko, Gasteizko eta Tolosako udal musika bandak gonbidatu ditu. Bilbokoa urtarrilean etorri zen, eta Gasteizkoa etorriko da orain. Frontoian izango da kontzertua, 12:30ean. Tolosakoa apirilaren 22an dator.

Bitartean, Bergarako udal musika banda CDa eta DVDa prestatzen ari da.



JOSETXO ARANTZABAL

## Mekolaldeko zubi berria jartzen dabiltza

Hasi dira Mekolaldeko zubi berria egiten. Hortik pasako dira Mekolaldeko industria gune berrira sartu eta handik irten behar duten ibilgailuak. Bi noranzko izango ditu, beraz, eta baita espaloia ere. Guztira, 12 metro zabaleran eta 52 metro luzeran izango ditu. Porlanezkoa eta altzairuzkoa izango da. Amenabar eraikuntza enpresa ari da jartzen, eta udarako bukatuko dutela esan du obren arduradunak. Orain arteko zubi zaharra, bestalde, oinezkoendako izango da, Mekolaldeko industria gune berria bukatzen dutenean.

> IKASTAROA
### Ardo-dastatze ikastaroa egingo dute eguenean, martxoak 15, Gure Ametsa elkartean

Ardo dastatze ikastaroa antolatu dute Gure Ametsa elkartean. Datorren eguenean egingo dute, martxoaren 15ean. Mikel Garaizabal enologoa gonbidatu dute horretarako, eta berak irakatsiko die elkarteko bazkideei ardoa nola dastatzen den. Hori egiteko, Arabar Errioxako upelategi bateko hiru ardo beltz ekarriko dituzte: urtekoa, ondua eta erreserbakoa. Bazkideek ikasiko dute, besteak beste, ardoaren kolorea, usaina eta zaporea bereizten. Ikastarorako pintxoak ere prestatuko dituzte.

Gure Ametsa elkarte gastronomikoko kultura taldeak antolatu du ardo-dastatze ikastaro hori eta aurrerantzean, beste ekitaldi batzuk antolatzeko asmoa ere badu.

> KORRIKA 15
### Martxoaren 19an egingo du bilera Bergarako Korrika taldeak, azken xehetasunak lotzeko

Korrikako Bergarako taldeak martxoaren 19an egingo du bilera, azken xehetasunak lotzeko. Oskar Elizburu Korrikak Debagoienean duen arduraduna ere joango da bilera horretara. Berak esan digun moduan, "ordurako jakingo dugu, ziurrenik, noiz eta non emango ditugun kilometroen dortsalak". Kilometroak erosi dituztenek lekukoa zein puntutan hartuko duten zehazteke dago oraindik, baina, bilera horretarako, hori ere erabakita izatea espero dute arduradunek.

Martxoaren 25ean, domeka, pasako da Korrika 15 Bergaratik, 07:15etik aurrera. 23rako, Korrika Txikia, txokolate-jana, jolasak eta Jardunen kantu afaria daude antolatuta, besteak beste.


San Lorentzoko eraikineko jolaslekuan. TXANTXIKU IKASTOLA


Kilometroak Oñatin. TXANTXIKU IKASTOLA



Lehenengo promozioko ikasleak, 30. urteurrenean. TXANTXIKU IKASLEAK

**HEZKUNTZA** > URTEURRENA

# Txantxiku Ikastolak 1967. urteko irailaren 18an hasi zuen bere bidea

Irailaren 17an, On Jose Maria Arrazolak egoitza bedeinkatu ondoren, hiru urteko 28 neska-mutiko eskolak ematen hasi ziren

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Baimenik gabe eta Elizaren babesean sortu zen Txantxiku Ikastola Alzaa kaleko (gaur egun, Kale Zaharra kalea) 27an, San Migel Kooperatibak zuen gela batean. 28 ikasle eskolak ematen hasi ziren, Eli Igartzabal andereñoaren agindupetara. 40 urte dira dagoeneko.

1969an, Oñatiko Ikastola Gipuzkoako Ikastolen elkarteko partaide egin zen.

**IZEN ALDAKETA**

70-71 ikasturtean behin-behineko baimena lortu ondoren, 1980an laguntzaile eta langileez osatutako Kooperatiba Integral bilkatu zen. Urte hartan, San Migel ikastola zena Txantxiku Ikastola bilakatu zen.

Batxilergoko eskolak 88-89 ikasturtean ematen hasi ziren. Halaber, urte hartan, Kilometroak jaia Oñatin ospatu zen. 100.000 pertsona baino gehiago etorri zen Oñatira, 1989ko urriaren 1ean.

2000. urtean, ikastola haurtzaindegi zerbitzua eskaintzen hasi zen eta, 2004an, Eusko Jaurlaritzak izendatutako Zilarrezko Q saria lortu zuen.

**EGOITZAK**

Ikastolako ikasle kopuruak gora egin ahala, leku aldaketa ugari izan zituen. Kale Zaharra, Agustinoen egoitza, San Lorentzoko gelak, Olakua, Gorritxitiko gelak eta plazako ikastetxea izan dira, besteak beste, ikastolak 40 urteetan izan dituen egoitzetako batzuk.

Kilometroak jaian jasotako diruarekin, 86-87 ikasturtean inauguratu zen Santa Anako eraikina. Harrez gero, eraikin horretan Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasleak daude eta, plazako ikastetxean, DBHkoak.

**Jabi Agirre** > Ikastolako zuzendaria

## "Ikastolaren sorreran Elizak emandako babesa ezinbestekoa izan zen"

**M.B.** > OÑATI

**Txantxiku Ikastolak 40 urte betetzen ditu aurten. Ibilbide luze honetan, une txarrak eta onak bizi izan ditu. Lehenengo gelan, 28 ikasle hasi ziren eskolak ematen. Edozelan ere, gaur egun, ikasle gehien dituen ikastetxea da. Urteurren berezi honetan, iraganaz eta etorkizunaz egin dugu berba Txantxiku Ikastolako zuzendarirekin.**

**40 urte pasa dira ikastola sortu zenetik. Zein balorazio egiten duzue?**

Oso positiboa. 1966ko udazkenean, Oñatiko euskaltzale talde ausart batek ereindako hazia hurrengo ikasturtean loratu zen eta, urtez urte, errotuz joan da. Orduan emandako urratsak eta ekimen hartan parte hartu zuten guztion lankidetzak gaur egun dugun egoerara ekarri gaitu.

**Zeintzuk izan dira, zure ustez urte hauetako unerik onenak eta txarrenak?**

Nik ez nituen bizi izan hasierako urteak, baina, duda barik, haiek izan ziren txarrenak, baimen eta baliabide barik, proiektu hark zer emango zuen garbi ez zegoenean. Azpimarratu nahiko nuke Elizak Ikastolaren lehenengo urteetan emandako laguntza eta babesa.

Eta une onak aipatzerakoan, bat bakarra aipatzea oso zaila da, asko egon baitira: 1970ean, behin-behineko baimena lortu genuenean; 1986an, Udalaren laguntzarekin, Foruen plazako eta Santa Anako ikastetxeetan ikasle guztiak biltzeko aukera izan genuenean; Batxilergoko ikasketak ematen hasi ginenean; 1989an, Kilometroak Oñatin ospatu genuenean; 2000. urtean, haurtzaindegi zerbitzua eskaintzen hasi ginenean; eta baita 2004an, guztion lanari esker, Euskalitek emandako Zilarrezko Q saria lortu genuenean. Hortaz, 40 urte hauetan lorpen asko izan ditugu.

**Hasieran, San Migel Ikastola zuen izena. 1980an, Txantxiku ikastola izena jarri zitzaion. Zergatik?**

Urte hartan, kooperatiba integral bilakatu ginen. Hala, izenaren gaineko gogoeta egin genuen. Bada, saririk gabeko lehiaketa batean, San Migel Ikastola, Txantxiku Ikastola bilakatu zen. Oñatirekin lortutako izena jartzea aproposa zela ikusi zuten arduradunek une hartan egindako gogoetan.


Jabi Agirre bere bulegoan. MIREIA BIKUÑA

**Ikastolak 28 ikaslerekin hasi zuen ibilbidea. Gaur egun, herriko ikastetxe handiena da. Zer iritzi duzue horren inguruan?**

Arrazoi asko etortzen zaizkit burura: herrian sortutako ikastola izan delako; guraso, laguntzaile eta langileok, sortu izan zaizkigun erronkei aurre egiteko ausardia erakutsi dugulako; etengabeko hobekuntzan ari den taldea garelako… Horrek guztiak ekarri du, gaur egun, Txantxiku Ikastolak 761 ikasle, 72 langile eta 155 laguntzaile izatea.

**Zuzendari zaren aldetik, Ikastola beste 40 urte irauteko gertu ikusten duzu?**

Zalantza barik, bai. Batez ere, Oñatin errotuta gaudelako. Orain arte izan dugun Kontseilu Errektoreaz gain, orain dela bi urte, Gurasoen Kontseilua martxan jarri genuen. Hala, haien bileretan, gurasoek erakusten duten lanerako gogoak eta borondateak gure proiektuarekin erabat identifikatuta daudela erakusten du. Halaber, gure ikasle izandakoak orain guraso dira, eta ikastolarekiko duten fideltasuna oso handia dela erakutsi digute.

**Etorkizunari begira, zeintzuk dira zuen helburu nagusiak?**

Gure xederik nagusiena ikasleak ahalik eta ondoen prestatzea da. Orain garatzen hasi garen Euskal Kurrikulumak, bost konpetentzia nagusi lantzea proposatzen digu, eta bide horretatik jarraituko dugu.

Halaber, Txantxiku Ikastolak orain arte egindako bidetik jarraitzen badu, leku aldetik eragozpenak izango ditugu. Hortaz, azterketa sakona egin beharko dugu, eta etorkizunerako beharrezkoak diren erabakiak hartu beharko ditugu.

**ARETXABALETA** > OHIKO OSOKO BILKURA EGINGO DUTE GAUR

# Zaharren egoitza aztergai gaurko osoko bilkuran

Zaharren egoitza, etxebizitza tasatuen kalifikazioa, bake epailearen izendapena eta beste, eztabaidagai

**IKER BARANDIARAN** > ARETXABALETA
Gaur, astelehena, udaleko osoko bilkura egingo dute. Hainbat gai izango dituzte eztabaidagai. Horietatik garrantzitsuenetako bat zaharren egoitza egiteko Egileor baserri azpiko lurren birkalifikazioa izango da. Aurreko osoko bilkuran, Aralar alderdiak neurri horren kontra bozkatu zuen. Erabaki hori hartzeko, informazio falta eta egoitzako egungo langileen etorkizuna jarri zituen argudio.

**ETXEBIZITZA TASATUAK**
Horrez gain, Udalak hemendik aurrera herrian egiten dituzten etxebizitza tasatuak lurzoruaren lege berrira egokitu gura ditu. Hala ere, azaldu digute Apotzagaetxebarriko maldan egiten dabiltzan promozioari ez liokeela aldaketarik eragingo.

Bestalde, izango dira beste kontu batzuk mahai gainean. Esaterako, Udalak eta Aldundiak adinduendako telefono bidezko laguntza arautzeko hitzarmena berritzeko asmoa dute. Gai hori ere landuko dute gaurko osoko bilkuran.

Etxebizitza eta lurzoruekin jarraituta, Udalak salgai jarri ditu Eguzkienea eraikuntza enpresa egiteagatik konpentsazioan dagozkion lurrak. Hala, salgai jarri dituzte lurrak, eta promozioa bultzatu duen enpresa berak, Progenek, erosiko ditu.

**BAKE EPAILE BERRIA**
Horrekin batera, bake epailea eta haren ordezkoa aukeratu beharko dituzte batzarrean. Bost lagunek eman dute izena, eta horietatik bi aukeratu beharko dituzte.



**EGOITZA** Gaur egun, Errekabarren kaleko 10 zenbakian dago edadetuen egoitza. JOSETXO ARANTZABAL




**EZKER ABERTZALEA** Herriko taldea, prentsaurrekoan. JOSETXO ARANTZABAL

**ARETXABALETA** > HAUTESKUNDEAK

# Ezker Abertzaleak herri programa lantzen dihardu, herritarren laguntzarekin

Ezker Abertzaleak jakinarazi du maiatzeko udal hauteskundeetara aurkeztuko dela

**I.B.** > ARETXABALETA
Ezker Abertzaleak udal hauteskundeetan egongo dela jakinarazi zuen joan den egubakoitzean. Prentsaurrekoa egin zuen egun horretan udaletxe zaharreko atarian. Hautagaien zerrenda gerorako utziko dutela azaldu zuten.

Argitu zuten aspaldian lanean gogor dabiltzala. Hain zuzen ere, udalerriaren egoera alorrez alor aztertu dutela azaldu zuten: euskara, hezkuntza, kirola, hirigintza, ingurumena, kultura eta gazteria banan-banan aztertu dituzte. Horretarako, udal teknikari, kirolari, kultura eragile eta alor bakoitzeko adituekin elkartu dira.

**DIAGNOSIA LANTZEN**
Aditu eta interesatu horiekin guztiekin berba egin eta gero, udalerriaren gaineko diagnosia egiten dihardute. Horrekin, herri programa osatuko dute.

Hala ere, nabarmendu zuten herri programa oraindik ez dagoela itxita; hain zuzen ere, herritarren proposamen gehiagoren zain daude.

**POSTONTZIAK ETA E-POSTA**
Behin herri programaren zehaztasun batzuk azaldu eta gero, gonbidapena egiten diete herritarrei euren iradokizun edo eskaerak egiteko. Hala, helburu horrekin, postontziak jarriko dituzte herrian, eta *aretxabaleta@gaztesarea.com* e-posta kontua zabaldu dute.

**MAIATZEAN AURKEZTUKO DIRA**
Horrez gain, Ezker Abertzaleko ordezkariek ziurtatu zuten maiatzeko udal hauteskundeetara aurkeztuko direla.

Are gehiago, gaineratu zuten egiten dabiltzan diagnosiak herriaren premiak mahai gainean jarriko dituela. Hala, horren bidean arituko dira.

**ESKORIATZA** > TORTOLIS LUDOTEKA

# Jostailu gehiago ekarriko dituzte mailegatzeko

Jostailuak aste baterako hartzeko aukera ematen du ludotekak, eta umeek zerbitzua erabiltzen dutela diote begiraleek

**LEIRE KORTABARRIA** > ESKORIATZA
Jostailuak maileguan hartzeko zerbitzua dago Tortolis ludotekan Gabonak geroztik, eta umeek dagoeneko hartu dute zerbitzu hori erabiltzeko ohitura. Hala, Karmele Pagaldai ludotekako begiraleetako batek dioenez, umeek dezente erabiltzen dute, eta gero eta gehiago egiteko aukera izango dute, izan ere, jostailu gehiago ekarriko dituzte laster. Euskarazko joko eta jolasen bila dabiltzala dio Pagaldaik.

**BALDINTZAK**
Egubakoitzetan, 18:30etik 19:30era, eta zapatuetan, 12:30etik 13:00etara, dago jostailuak hartzeko modua, astebeterako. Ludotekako bazkide izatea da horretarako baldintza bakarra. Batik bat, 3-7 urte bitartekoendako jostailuak dituzte.

Jostailua hartzearekin bat, umeek berau ondo zaintzeko konpromisoa hartu behar dute, eta gurasoek ere orri bat sinatu behar dute. Begiraleak esaten duenez, "orain arte, behintzat, ondo zaindu dituzte jostailuok".

**PASTEL LEHIAKETA**
Bestetik, umeendako ekintza bereziak antolatzen dituzte ludotekan. Hala, joan den zapatuan, pastelak egin zituzten Karmele Pagaldai eta Leire Orueta begiraleekin. Madalenak, txokolatea, gominolak... erabili zituzten horretarako. Arduradunen esanetan, lehiaketa baino gehiago, umeei irudimena erabiltzen laguntzeko eta elkarrekin ondo pasatzeko ekintza izan da, eta, bukaeran, guztiei banatu dizkiete gozokiak.

Arduradunek diotenez, "zapatuetan, batez ere 3-7 urte artekoak etortzen dira, nagusitxoagoek kirola-eta izaten dutelako". Beraz, adin horietakoak ibili dira oraingoan gozogile.



**GEHIAGO** Euskarazko joko eta jolasak ekarri nahi dituzte. JOSETXO ARANTZABAL



**SAIHESBIDEA** Lurra erortzeko arriskua zegoen, eta hori konpontzeko lanak egin dituzte Elgetako saihesbidean. L. Z.

**ELGETA** > SAIHESBIDERA LURRA JAUSTEKO ARRISKUA ZEGOEN

# Lurra kendu dute saihesbidera ez jausteko

### Gipuzkoako Foru Aldundiaren teknikoek egin dituzte lanok, eta erakundeak ordainduko ditu

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Makinak ikusi ditugu berriki Salbador ermitarako bide inguruan lurrak mugitzen. Lurra kendu dute leku horretatik, izan ere, saihesbidera erortzeko arriskua ikusi zuen Udalak. "Paseoan zebilen herritar bat konturatu zen zulo handiak zeudela horma horretan, eta berak eman zuen abisua", adierazi dio GOIENKARIAri Udaleko aparejadore Alberto Olaldek. "Horma hori ez da naturala, saihesbidea egiterakoan betelana egin zen hor, eta zuloak agertu dira orain".

Elgetako Udala Gipuzkoako Foru Aldundiarekin jarri zen harremanetan, eta saihesbideko teknikariak bidali zituzten. Teknikariek lurra saihesbide gainera erortzeko arriskua zegoela baieztatu zuten, eta lanak egin behar zirela adierazi zuten.

**ALDUNDIAK ORDAINDU**

Elgetako Udalak bideratu ditu egokitze lanok, baina Foru Aldundiak ordainduko ditu. Teknikoek onespena eman diete dagoeneko egindako lanei.

**ARAMAIO** > POLITIKA

## Udalak bat egin du 'Zatoz euskaraz!' egitasmoarekin

### Hauteskundeetan euskararen erabilera bultzatzeko ekimena da, Mankomunitatearena

**UBANE MADERA**> ARAMAIO

Aramaioko Udalak bat egin du Debagoieneko Mankomunitateak abiarazi duen *Zatoz Euskaraz!* programarekin. Izenak dioen moduan, euskara bultzatzeko ekimena da hori, euskararen normalizazioaren bidean.

Maiatzaren 27ko udal hauteskundeei begira, alderdi politikoen ordezkariei, hautagaien zerrendak egiterakoan, hautagaiak euskaradunak izan daitezela eskatu diete, besteak beste.

**ETXEZ ETXE**

Udalak jakinarazi duenez, eskuorriak argitaratu eta etxez etxe bidaliko dituzte oraingo astean; guztira, 600, herriko etxe guztietara iristeko.

**EZKER ABERTZALEA**

Bestalde, hauteskundeen harira, Aramaioko ezker abertzaleak jakinarazi du badutela horietara aurkezteko asmoa. Halaber, jakinarazi dute dagoeneko hasi direla herri batzarrak egiten. Helburua da herriko egoera orokorraren gainean hausnarketa egitea eta interesa duten herritarren ekarpenak jasotzea.

Hala, hurrengo herri batzarra bihar, martitzena, egingo dutela iragarri dute. Hitzordua 19:00etan da, kultura etxean. Aisialdiaz, kulturaz eta gazteriaz egingo dute berba. Interesa duen edozeinek parte har dezake batzar horretan eta aurrerago egingo dituztenetan.



**DATUAK** Euskararen erabileraren gaineko datuak batzen ditu eskuorriak. O.ARRIETA

**LEINTZ GATZAGA** > SORAN ETXEA

## Soran etxea aztertu dute arkeologoek, eta ez dute lanak gelarazteko arrazoirik aurkitu

### XVI. mendean berregin egin zuten etxea, eta hortik atzerako ondarea aurkitu izanez gero, lanak atzeratu egingo zitezkeen



**BERRITU** Antzinako Soran etxea berritzen dabiltza. JOSETXO ARANTZABAL

**LEIRE KORTABARRIA** > LEINTZ GATZAGA

Soran etxea berritzeko lanak ez dituzte gelaraziko; horren beldur ziren jabeak, Gaztainuzketa jatetxekoak. "Arkeologoek aztertu dute etxea, eta ez dute baliozko ezer aurkitu. Hala gertatu izan balitz, lanak gelditu behar izango zituzketen", dio Gaztainuzketako Montse Valeriok.

Soran etxea berregin egin zuten XVI. mendean, eta hortik atzerako ondarerik egon zitekeela uste zuten.

**ZIMENDUAK**

Orain, zimenduak indartzeko lanak hasi dituzte. Izan ere, etxea pixka bat oker dago, eta zimendu onak izatea oso garrantzitsua da. Jabeen esanetan, uste zuten baino gehiago dago etxearen egituran erabiltzeko moduan.

**ANTZUOLA** > HIRIGINTZA

## Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia behin-betiko onartu dute

### Planaren helburua da hirigune historikoa babestea, batetik, eta bizi kalitatea eta eraikinen kalitatea hobetzea, bestetik

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Urte luzetako tramiteen ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onartu du Antzuolako Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia.

Antzuolako Udalak 2003ko urrian onartu zuen behin-behineko dokumentua, eta jendaurrean jarri zuten. Ordutik, ia lau urte pasatu dira. Atzerapen horren arrazoi nagusiak dira, batetik, ingurumen-inpaktuaren gaineko azterketa egin gabe zegoela eta, bestetik, erreka bideratzeko proiektuak eragindako aldaketak egin behar zirela.

**IRIZPIDE ZEHATZAK**

Plan Bereziaren helburuak dira, batetik, hirigune historikoa babestea eta zaintzea, eta, bestetik, hango bizilagunen bizi kalitatea eta eraikinen kalitatea hobetzea.

Plana oso zehatza da, eta irizpide zehatzak markatzen ditu eraikinei eta hirigintza gaiei dagokienez. Besteak beste, hiriguneko eraikin guztiak banan-banan aztertu eta bakoitzaren gaineko irizpideak markatzen ditu planak. Horrela, hainbat kategoriatan banatu dituzte eraikinok: babes berezia behar dutenak, babes ertainekoak, oinarrizko babesa behar dutenak eta hirigunearekin bat ez datozenak.



**> FUTBOLA**
Aloña Mendik azken minutuan lortu zuen berdinketa> 18



**> ESKUBALOIA**
Bergarako senior mailako mutilak, igoera faseari begira > 19



**> ATLETISMOA**
Yeray Varelak ez zuen Espainiako kros txapelketa bukatu > 21



**> PILOTA**
Ibarreko pilotariak txapeldun izan dira Euskal Ligako finaletan > 21




**PIRENA** Irudian, Itoitz Armendariz, iazko Pirenako proban.

ITOITZ ARMENDARIZ

**MUNDUKO MUSHING TXAPELKETA** > SUEDIAN JOKATU DA

# Armendariz 25. tokian sailkatu da Munduko Txapelketan

**TXAKURRAK**
Txakur kopuruaren arabera sailkatzen dira kategoriak; Itoitz sei txakurrekin aritzen da

**EGURALDIA**
Zero azpitik bi graduko tenperatura izan dute Suedian; tenperatura altua lasterketarako

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

"Gustura geratu naiz egin dudan lanarekin; nire helburua lasterketa ondo bukatzea zen", azaldu digu Itoitz Armendariz eskoriatzarrak Suedian jokatu duen Munduko Kopako azken jardunaldiaren ostean. Hiru egunetako lana kontuan hartuta, 25. postuan sailkatu da Armendariz.

**12 KILOMETROKO LASTERKETA**

Egubakoitzean, zapatuan eta atzo, domeka, jokatu dituzte Munduko Txapelketako probak. 12 kilometroko lasterketa izan da, eta ibilbidea laua izan da: 250 metrotako gorabeheradun bi malda besterik ez ditu izan lasterketak.

Hiru egunetan, ibilbide bera egin behar izan dute. Lehenengo egunean, 25. tokian sailkatu zen Armendariz; bigarrenean, 26. tokian, eta atzo, 24. sailkatu zen. Hiru egunetako lana kontuan hartuta, 30 parte-hartzaileren artean 25. postuan sailkatu da eskoriatzarra Munduko Txapelketan.

Txakur kopuruaren arabera, kategoria ezberdinetan sailkatzen dira parte-hartzaileak; Itoitz Armendarizek sei txakurreko kategorian hartu du parte.

**AURTENGO NEGUA, TXARRA**

Aurtengo negua txarra izan da neguko kiroletan aritzen direnentzat. Hala adierazi digu Armendarizek: "Guk Pirinioetan entrenatzen dugu, baina aurten ez dugu elurrik izan. Gainera, ez da komeni txakurrak 10 gradutik gorako tenperaturekin entrenatzea, eta, aurten, oso egun gutxi izan ditugu hotzak".

Suedian ere, ez dute izan aukerako tenperatura: "Zero azpitik bi gradu besterik ez du egin, eta tenperatura horrek elurra bigundu egin du". Hiru aste eman dituzte Armendarizek eta Iker Ozkoidi taldekideak Europako iparraldean. Lehenengo, Norvegian izan ziren, gero Suediara joan ziren eta, azkeneko astean, Suediako Äsele herrian izan dira, Munduko Txapelketa jokatu den lekuan.

## Datorren astean, Europako Txapelketa jokatuko dute Norvegiako Hamar herrian

Atzo hartu zuten Itoitz Armendarizek eta Iker Ozkoidik Suediatik Norvegiarako bidea. Han, datorren aste bukaeran, Europako Mushing Txapelketa jokatuko dute; gainera, txapelketa jokatuko den Hamar herrian entrenatzeko aukera izango dute Armendarizek eta Ozkoidik. Munduko Txapelketan egin duen lana hobetzea izango da eskoriatzarraren helburua: "Europako Txapelketan ez da Mundukoan besteko mailarik izango", esan digu Itoitzek.

Bestalde, Armendarizek Munduko Txapelketan parte hartu ahal izatea posible egin duten guztiak eskertu gura ditu. Baita ere, babesa eman dioten enpresak: Azkar Garraioak, Ternua, Irun Autokarabanak –autokarabana utzi diote– eta CP eta Bula arropa markak.



SENIOR MAILAKO MUTILAK
**Goiko ilaran, ezkerretik hasita:** Julen Arregi, Jon Mendiola, Carlos Cruickshank, Gorka Judez (entrenatzailea), Eneko Amado, Alex Anduaga eta Igor Otamendi
**Beheko ilaran, ezkerretik hasita:** Iñigo Zabaleta, Iban Lizarralde, Alain Anton, Beñat Madariaga, Gorka Aranburu eta Eneko Blanco. Argazkian Iker Zabaleta falta da.

Servimasa
XANTXIKU ELEKTRIZITATEA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

# Kirol Elkartea 06-07 (Saskibaloi saila)




SENIOR MAILAKO NESKAK



GAZTE MAILAKO MUTILAK



KADETE MAILAKO MUTILAK



INFANTIL MAILAKO MUTILAK



INFANTIL MAILAKO NESKAK



IZARRAITZ
TABERNA

**PREFERENTE MAILA** > SAILKAPENEKO BIGARRENAK EGIN ZUEN BISITA AZKOAGAINERA

# Merezitako puntua eskuratu zuen Aloñak azkeneko minutuan

ALOÑA MENDI
**1-1**
HERNANI

**Aloña Mendi** > Elgarresta, Sanchez, Elgarresta, Idigoras, Garai, Arregi, Barrena, Lopez, Astola, Astigarraga eta Olalde.

**Hernani** > Garcia, Aginagalde, Mingo, Arregi, Zabala, Peru, Urretabizkaia, Bakero, Torre, Kijera eta Hodei.

**Epailea** > Casanova jauna. Abal eta Agirre izan zituen laguntzaile. Nahiko lan kaxkarra egin zuen, eta ikusleak ez ziren gustura geratu atzo Azkoagainen.



ARRISKUA Eskumako hegaletik, arriskua sortu zuen Astigarragak, baina egindako gola ez zen markagailura igo. J. ARANTZABAL

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

Aloñak gogoz jokatu zuen atzo Azkoagainen eta, azkenean, lanak bere fruitua izan zuen. Izan ere, azken minutuan eta penaltiz, Aloñak partidua berdintzea lortu zuen.

**ZORITXARREKO JOKALDIAN, GOLA**

Partiduko lehenengo aukera etxekoentzat izan zen: Unai Arregik, ezkerreko hegaletik, jokaldi polita egin zuen baina, atezaina gainditu eta jaurtiketa egin zuenean, Hernaniko atzelari batek baloia urruntzea lortu zuen. Hala, jokaldia ezerezean geratu zen.

Bi taldeak ondo kokatuta atera ziren berdegunera, baina zelai erdiaren jabe ez zen inor egin. Baloia azkar mugitu zuten, eta arriskuko jokaldiak sortu zituzten. Lehenengo gol Hernanik egin zuen. 20. minutuan, zoritxarreko jokaldi batean, baloia Elgarrestaren atean sartu zen. Denbora luzez min hartuta egon eta gero, Aloñako atezaina berriro ere itzuli da jokora. Atzo, baina, ez zuen egunik onena izan Jon Ander Elgarrestak.

**ALOÑA, BAT GUTXIAGOREKIN**

Hernanik gola egin eta handik gutxira, Aloña jokalari bat gutxiagorekin geratu zen. Epaileak, marrazainaren aginduz, Mikel Sanchez egotzi zuen. Egoera hartan, ezer galtzeko izan gabe, Aloña gora etorri zen. Zelai erdiaren jabetza hartu zuten oñatiarrek, eta Astigarraga eta Idigorasen abiaduraz baliatu ziren Hernaniren ate inguruan arriskua sortzeko.

Atzokoan, baina, zoria ez zuten aldeko izan oñatiarrek. Izan ere, Astigarragak sartutako gola balio gabe utzi zuen epaileak, eta beste hainbat aukera ezerezean gelditu ziren.

Azkeneko minutuan, baina, epaileak Aloñaren aldeko penaltia adierazi zuen. Unai Arregik hartu zuen baloia jaurtitzeko ardura, eta ez zuen hutsik egin. Horrenbestez, atzokoan, justizia egin zen.

**PREFERENTE MAILA** > 25. JARDUNALDIA

# Mondraren urteko partidurik txarrena

Minutu askotan bat gehiagorekin jokatu arren, Mondrak ez zuen etekinik atera

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Preferente mailako azken sailkatuaren, Urolaren, aurka jokatu zuen Mondrak denboraldiko partidurik txarrena: 0-2. Jokalari bat gutxiagorekin jokatu arren, Zumarragako taldea hobeto kokatu zen zelaian ,eta izandako aukerak aprobetxatu zituen garaipena lortzeko. Halaber, Mondrak apenas izan zuen gol aukerarik zapatuko norgehiagokan.



BURUKADA Jon Murua baloia buruarekin jotzeko gertu. JOSETXO ARANTZABAL

PREFERENTE MAILA

## Partidu txarra jokatu zuen UDAk Anaitasunaren aurka

Gol barik bukatu zen atzo Ibarra futbol zelaian UDAk eta Anaitasunak jokatutako norgehiagoka.

Felix Reciok zuzentzen duen taldeak ez zuen partidu ona jokatu; aitzitik, nahiko eskasa izan zen. Anaitasunak ere ez zuen joko onik egin. Horregatik guztiagatik, ez UDA ezta Anaitasuna ere ez ziren gai izan aurkariaren atea zulatzeko. Hala, puntuak banatu egin zituzten.

Preferente mailako 25. jardunaldia jokatu ondoren, Aretxabaletako taldeak 30 puntu ditu sailkapenean. Aste bukaeran, Ondarroako Aurreraren aurka jokatuko dute.

## emaitzak eta sailkapenak

### PREFERENTE MAILA

**Sailkapena**

| | Puntuak | JP |
|---|---|---|
| 1. **Zarautz** | **54** | 23 |
| 2. **Hernani** | **48** | 23 |
| 3. **Ordizia** | **41** | 23 |
| 4. **Zestoa** | **40** | 23 |
| 5. **Anaitasuna** | **39** | 23 |
| 6. **Berio** | **38** | 23 |
| 7. **Mondra** | **37** | 23 |
| 8. **Trintxerpe** | **35** | 23 |
| 9. **Aurrera** | **33** | 23 |
| 10. **Touring** | **33** | 23 |
| 11. **uda** | **31** | 23 |
| 12. **Aloña Mendi** | **31** | 23 |
| 13. **Hondarribi** | **29** | 23 |
| 14. **Idiazabal** | **26** | 23 |
| 15. **Pasaia** | **23** | 23 |
| 16. **Mutriku** | **22** | 23 |
| 17. **Martutene** | **21** | 23 |
| 18. **Urola** | **19** | 23 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Aurrera-Ordizia | 2-1 |
| Zestoa-Hondarribia | 1-0 |
| Aloña Mendi-Hernani | 1-1 |
| Zarautz-Pasaia | 6-0 |
| Trintxerpe-Martutene | 1-1 |
| Mondra-Urola | 0-2 |
| Idiazabal-Mutriku | 3-2 |
| Berio-Touring | 1-2 |
| UDA-Anaitasuna | 0-0 |

**Hurrengoak**

Aurrera-UDA
Ordizia-Zestoa
Hondarribia-Aloña Mendi
Hernani-Zarautz
Pasaia-Trintxerpe
Martutene-Mondra
Urola-Idiazabal
Mutriku-Berio
Touring-Anaitasuna

### BESTELAKOAK

**LEHENENGO ERREGIONALA**

| | |
|---|---|
| Ilintxa-Bergara | 1-2 |

**BIGARREN ERREGIONALA, IGOERA**

| | |
|---|---|
| BTLS | atsedena |
| Mariño-Elgeta | 5-1 |
| Antzuola-Intxurre | 4-0 |

**BIGARREN ERREGIONALA, KOPA**

| | |
|---|---|
| UDA | atsedena |
| Zestoa B-Mondra | 2-1 |

**EMAKUMEZKOAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Eibartarrak-Mondra | 0-0 |
| BTLS-Tolosa | 2-0 |

**EMAKUMEZKOAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Arizmendi UDA | atsedena |
| Elgoibar-Aloña Mendi | 4-2 |

**OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| Burumendi-Aloña Mendi | 0-3 |
| Beasain-UDA | 1-1 |
| Beti Gazte-Mondra | 1-1 |

**OHOREZKO GAZTEAK, KOPA ETA JAITSIERA**

| | |
|---|---|
| Bergara-Ordizia | 1-1 |

**LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA**

| | |
|---|---|
| UDA Arizmendi-Allerru | 1-2 |

**LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| Eibartarrak-Arrasate | atzeratua |
| Bergara-Zestoa | 1-5 |
| Antzuola-Urki | 4-0 |

**OHOREZKO KADETEAK, IGOERA**

| | |
|---|---|
| UDA Arizmendi-Bergara | 2-1 |

**OHOREZKO KADETEAK, KOPA ETA JAITSIERA**

| | |
|---|---|
| Arrasate-Beasain | 0-0 |
| Aloña Mendi-Hondarribia | 2-0 |

**LEHENENGO MAILAKO KADETEAK, KOPA**

| | |
|---|---|
| UDA B-Arizmendi | atsedena |
| Zestoa-Bergara B | 2-1 |

**KADETE NESKAK**

| | |
|---|---|
| Zarautz-Aloña Mendi | 3-0 |
| ArizmendiUDA B-Gasteiz Cup | 3-4 |

**EMAKUNEZKOAK, ZORTZINAKO FUTBOLA**

| | |
|---|---|
| Ekintza-Arizmendi UDA | 0-4 |

**SENIOR NESKAK** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Bigarren zatiaren lehen minutuetan erabaki zuen norgehiagoka Aloñak

VERKOL ALOÑA
**26-15**
ERMUA

**Verkol Aloña** > Olatz, Eneritz, Nagore (4), Jone (1), Maialen (1), Ainhoa (5), Rebeka, Idurre, Erika (4), Olatz (3), Arantzazu (2), Ixone (4) eta Ane (2).

**Ermua** > Gil (2), Rueda (1), Nuñez (2), Bilbao, Trincado, Arrizabalaga (3), Roman (4), Luque eta Medina (3).

**Golak bost minuturo** > 4-2, 5-2, 5-4, 7-4, 7-6, 8-9. Atsedena. 13-9, 16-9, 18-12, 21-12, 23-13, 26-15.



**JAURTIKETA** Erika Arteagak ez zuen zorte gehiegirik izan kanpoko jaurtiketetan. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Garaipen garrantzitsua lortu zuen Verkol Aloñak atzo Ermuaren aurkako partiduan. Joan den aste bukaeran Logroñon galdu ondoren, Oñatiko taldeak bere esku du sailkapeneko bigarren tokian amaitzea. Hala, postu horrek datorren denboraldian Euskadiko Txapelketako A multzoan jokatzeko aukera emango die oñatiarrei.

**IDEIA BARIK**

Zubikoan jokatutako partidua arraro samarra izan zen. Etxekoak erritmo handiarekin atera ziren kantxara, eta berehala hartu zuten errenta markagailuan. Hala, 4-2 ziren aurretik bosgarren minutua bete orduko.

Bada, handik aurrera, taldearen jokoa asko nahastu zen eta, atsedena bitartean, beste lau gol bakarrik lortu zituztén. Halaber, lehen zatian, Aloñak bere alde izan zituen hiru penaltiak huts egin zituen. Horregatik guztiagatik, Ermua iritsi zen atsedenera abantailarekin: 8-9.

**BIGARREN ZATIA**

Bigarren zatia oso bestelakoa izan zen, joko aldetik. Atsedeneko aholkuak entzunda, fin aritu ziren Verkol Aloñako neskak erasoan. Hala, 9-0ko partzialari esker, berriro menderatu zuten norgehiagoka: 17-9. Errenta harekin, lasaiago jokatu zuten. Halaber, defentsan gogor jokatu zuten. Hortaz, ez zuten arazorik izan garaipena eskuratzeko.

Bizkaitarrak bederatzi jokalarirekin agertu ziren Oñatin eta, bigarren zatian, nekea antzeman zuten. Tarte hartan, Ermua taldeak sei gol egin zituen, eta Aloñak, berriz, 18.

KADETE MAILA

## Azkeneko lehiaren faltan, Espainiako Txapelketa jokatzea eskuetan du Aloñak

Garrantzitsua izan zen zapatuan Verkol Aloñak Bizkaiko San Adrianen aurka jokatu zuen lehia. Oñatiarrak bigarren dira Euskadiko Txapelketako sailkapenean eta, azkeneko partiduaren faltan, Espainiako Txapelketa jokatzeko txartela eskuetan dute oñatiarrek. Zapatuan, gogor atera ziren Erik Fuentek eta Eneko Gonzalezek zuzentzen dituzten neskak; partidu hasiera bikaina egin zuten. Batez ere, defentsan aritu ziren ondo; hala, lehenengo zatiko 19. minutuan, 8-0 ziren aurretik etxeko neskak. Nerea Morenoren eta Itziar Murgiondoren lana aipatzekoa izan zen zapatuko lehian. Partidu amaieran, emaitza 24-14 izan zen etxekoen alde.

Datorren astean, Gasteizera egingo dute bisita oñatiarrek, Espainiako Txapelketa jokatzeko txartela lortzeko. Maiatzaren 12an, 13an eta 14an jokatuko da Espainiako Txapelketa.

**LEHENENGO TERRITORIALA** > BERGARA, GIPUZKOAKO TXAPELDUNA

# Gipuzkoako txapela lortuta, burua igoera fasean dute

BERGARA
**34-22**
LEIZARAN

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Zapatuan jokatu zuen Bergarak Gipuzkoako txapelketako azkeneko partidua. Zapatuko lehian, ezer gutxi zegoen jokoan; Bergarak txapelketa poltsikoan zuen, eta hura ospatzera atera zen. Andoaingo Leizaran taldea, berriz, sailkapeneko azkena da eta, ahaleginak egin arren, ezer gutxi egin zuen Labegaraietan.

Lehenengo minutuetan, Bergara nahastuta ibili zen; etxekoek atzean huts asko egin zituzten, eta Leizaranek huts horiek aprobetxatu zituen markagailuan aurretik jartzeko. 10. minutuan, 8-9 atzetik zen talde mahoneroa.

**PIXKANAKA-PIXKANAKA, GORA**

Minutuak aurrera joan ahala, Bergarak bere lekua hartu zuen kantxan. Hala, bizkortasunaz baliatu ziren mahoneroak jokoaren jabe egiteko. Aspaldiko partez, Mikel Larrañaga sartu zen jokoan; bergararra indarraz baliatu zen aurkariaren defentsa zulatu eta Bergara markagailuan aurretik jartzeko. Ezin aipatu gabe utzi Jon Kapelastegik ate azpian egindako lan bikaina.

Hala, atsedenera, etxeko taldea 19-13 aurretik iritsi zen. Bigarren zatian, gauzak samurragoak izan ziren. Neurketa erabakita, Bergarak aldaketa asko egin zituen; jokalari guztiek izan zuten jokoan parte hartzeko aukera, eta jokaldi berriak eta ikusgarriak egiten ahalegindu ziren.

Talde mahoneroak datorren astean hasiko du Euskadiko Txapelketarako igoera fasea. Oraindik erabakitzeko dago non eta noren aurka izango den lehia.



**OSPAKIZUNAK** Amaieran, Bergarako jokalariak txapelketa ospatzen. J. ARANTZABAL

**emaitzak**

MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **BIGARREN MAILA NAZIONALA** | |
| Elgoibar-Ford Mugarri | 30-28 |
| **EUSKADIKO GOREN MAILA** | |
| Verkol Aloña-Ermua | 26-15 |
| **LEHENENGO TERRITORIALA** | |
| Bergara-Leizaran | 34-22 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Aloña Mendi | atsedena |
| Bergara | atsedena |
| **GAZTE NESKAK, UDABERRI SARIA** | |
| Verkol Aloña | atsedena |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Aloña Mendi-Urnietako | 27-24 |
| Gatz Museoa Jakion-Katilu | 23-29 |
| **EUSKADIKO TXAPELKETA, KADETE NESKAK** | |
| Verkol Aloña-San Adrian | 24-14 |
| **KADETE NESKAK, UDABERRI SARIA** | |
| Arrasate-Bera Bera | 8-28 |

**SENIORRAK** > GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA

# Ointxe-Arrasate nagusitu zen zapatuan

Ointxe-Arrasate eta Erroibide taldeek saskibaloi partiduan neurtu zituzten indarrak zapatuan. Arazo handirik gabe nagusitu ziren etxekoak

OINTXE-ARRASATE
**62-52**
ERROIBIDE

**Ointxe-Arrasate** > Garrido (9), Urkiola (6), Merino (12), Urtubi (11), Zeziaga, Briñas (2), Isasa (14), Bidauru (2), Zabala (2) eta Rodriguez (5).

**Erroibide** > Arozena (9), Lorenzo (8), Viedma, Errazkin (13), Santano (4), Sanchez (2), Agirre, Lopez, Hernandez, Zamarreño (7) eta Lartigue (9).

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 17-16. Bigarren laurdena: 34-30. Hirugarren laurdena: 46-42. Laugarren laurdena: 62-52.

**KOLDO CARRILLO** > ARRASATE

Ointxe-Arrasate eta Erroibide taldeek saskibaloi partidua jokatu zuten zapatu arratsaldean Iturripeko kiroldegian. Arrasatearrak aurretik izan ziren partidu guztian zehar, eta errenta amaierara arte eusten jakin izan zuten.

Hasieran, Irungo taldea makal hasi zen, erasoan baloiak galtzen eta joko nahasiarekin, eta etxeko taldeak errenta txiki bat hartzeko aukera aprobetxatu zuen (9-4). Baina Erroibidek garaiz erreakzionatu zuen, eta lehen laurdenaren amaierara puntu bat bakarrik atzetik iritsi ziren (17-16).

**ASMATZEN HASI**

Bigarren laurdenean zehar, Ointxe-Arrasatek aurkariekiko errenta pixka bat zabaldu zuen, lau eta hutseko partzialari esker, eta markagailuan bi taldeen arteko aldea sei puntutan ezarri zuen (24-18). Partidaren atsedenaldira, lau puntuko aldearekin heldu ziren arrasatearrak (34-30).

Hirugarren laurdenean, ez zen bestelakorik gertatu; Ointxe-Arrasatek aurrera egin zuen saskiraketei esker, eta Erroibidek atzetik jarraitu zituen etxekoak, markagailuan oso urrutira joan ez zitezen. Erroibidek erasoko jokaldietan baloi galerekin jarraitzen zuen, eta arrasatearrek lauzpabost puntuko aldeari eutsi zioten laurdenaren amaierara arte (46-42).

Azken laurdenean, etxekoek jokoa hobetu zuten, eta nagusitzen hasi ziren. Bost minutuan 9-0eko partziala egin ostean, arrasatearrek 55-42ko emaitza ezarri zuten markagailuan. Azkenean, 62-52 puntuko emaitzarekin amaitu zen partidua.



**KONTRAERASOA** Urkiola jokalaria, arin baloia aurkako taulara igotzen. JOSETXO ARANTZABAL

EUSKAL LIGA

## Denboraldiko partidurik txarrena, Gasteizen

Urteko partidurik txarrenean (101- 71), denboraldiko laurdenik eskasenak jokatu zituen Mugarri Alkesako gazte mailako taldeak, zapatuan, Baskoniaren aurka. Euskal Ligako seigarren jardunaldiari zegokion partiduko bigarren eta hirugarren tarteetan, etxekoek 27-9ko eta 33-21eko partzialak egin zituzten, hurrenez hurren. Hala, azken tartean, 30 puntuko errenta zuten etxekoek.

Bada, arrasatearrak aukera barik iritsi ziren laugarren laurdenera. Porrotarekin, Euskal Ligako sailkapena asko zaildu zaie arrasatearrei.

**SENIOR MUTILAK** > IGOERA FASEA

# Aloñak mendean hartu du aurkari zuzena (82-72)

Datorren astean, Bergarako Candyren aurka jokatuko dute

**A.G.** > OÑATI

Aurreko astean etxeko zaleen aurrean galdu eta gero, zapatuan, Aloña Mendiko mutilek gogor egin zuten lana partidua aurrera ateratzeko. Baja asko izan zituen etxeko taldeak; ondorioz, Aloñak gazte mailako bost jokalarirekin jokatu behar izan zuen Donostiako Bar Iraeta Donosti Dolphins-en aurka.

Hasiera kaxkarra egin zuen etxeko taldeak. Lehenengo hiru minutuetan, 0-12ko partziala jaso zuten oñatiarrek. 4. minuturako, etxeko taldeak hutsartea eskatu behar izan zuen; ondorioz, Aloñakoak indarberritu egin ziren.

**LEHIA BORROKATUA**

Minutuak aurrera pasa ahala, Aloñak tartea murriztu zuen markagailuan. Hala, gogor borrokatu eta antxintxika asko egin behar izan zuten markagailuan aurretik jartzeko. Azkenean, baina, joko onik egin ez arren, Aloña Mendik partidua menderatzea lortu zuen.

Datorren astean, ibarreko derbia jokatuko dute Labegaraietan; Candyk eta Aloñak neurtuko dituzte indarrak. Sailkapenean, Bergarakoak aurretik dira.



**MADARIAGA** Aloñako Beñat Madariaga, baloiarekin. JOSETXO ARANTZABAL

**emaitzak**

MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Irun Basket-Candy | atzeratuta |
| Ointxe Arrasate-Erroibide | 62-52 |
| Aloña Mendi-Bar Iraeta | 82-72 |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Easo-Eskoriatza | 34-42 |
| Aloña Mendi-Cafes Aitona | 26-47 |
| **GAZTE MUTILAK, EUSKADIKO TXAPELKETA** | |
| Vasconia-Mugarri Alkesa | 101-71 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Krafft Igaratza-Aloña Mendi | 36-57 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Eskoriatza-Andraitz | 60-25 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Goierri-Ford Mugarri | 56-65 |
| Krafft-Construcciones Alkesa | 91-51 |
| Tolosa-Aloña Mendi | 116-13 |
| Ordizia-Bergara | 65-42 |
| **KADETE NESKAK** | |
| Eskoriatza-Krafft | 41-52 |

**PILOTA** > EUSKAL LIGAKO FINALAK

# Ibarreko pilotariak, txapeldun Euskal Ligan

Aitor Mendizabal eta Xabi Agiriano Eskoriatzako bikoteak gazte mailako finala irabazi zuten; eta Ibai Bolinaga arrasatearrak, kadete mailakoa

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA
Zapatuan eta domekan jokatu zituzten ibarreko pilotariek Euskal Ligako finalak. Hala, bi finaletan, eskualdekoak izan ziren txapeldun: Bolinaga, kadete mailan, eta Mendizabal eta Agiriano bikotea, gazte mailan.

**KADETE MAILAKO FINALA**
Ibai Bolinaga arrasatearrak eta Lama Lizarrako pilotariak jokatu zuten Elgetan kadete mailako finala. Bada, partidu gogorra jokatuta, Bolinagak lortu zuen txapela: 18-14.

Elgetako pilotalekuan jokatutako partidua ikustera, Arrasateko zale asko hurbildu zen, eta haien animuekin eta kantxan egindako lanari esker lortu zuen Ibai Bolinagak irabaztea. Gorabehera handiko norgehiagoka izan zen; tarte batzuetan, Bolinaga zegoen aurretik markagailuan, eta beste batzuetan, Lama. Hortaz, berdinketa bakarra egon zen atzoko partiduan: 6-6.

Bolinagak menderatu zituen hasierako tantoak. Ondoren, Lamak jokatu zuen hobeto. Bada, amaieran, txapela Bolinagak jantzi zuen. Juan Luis Ubera Ozkarbi elkarteko pilota sailaren arduradunaren eskutik.

**MENDIZABAL ETA AGIRIANO**
Gazte mailako finalean, Mendizabal eta Agiriano bikotea gailendu zen, Jaunenea eta Barberenaren aurka: 22- 17.

Bi bikoteek partidu parekatua jokatu zuten. Markagailuan, aldaketa asko egon ziren. Hala, Eskoriatzako bikoteak amaierako tantoetara itxaron behar izan zuen partidua irabazteko. Aitor Mendizabal, Eskoriatzako aurrelaria, izan zen partiduko pilotari onena.

Euskal Ligako finalera iristeko, Gipuzkoako Txapelketa eta beste zazpi partidu irabazi dituzte Mendizabalek eta Agirianok.





**IRABAZLEAK** Ezkerrean, Agiriano, Iñurrategi (delegatua) eta Mendizabal. Eskuman, Ubera eta Bolinaga. GOIENKARIA



JOSETXO ARANTZABAL

## 600 ume bildu dira XX. mendi martxan

Debagoieneko eta Debabarreneko neska-mutikoak izan genituen atzo Antzuolan, XX. Eskolarteko Mendi Martxan. 08:30ean atera ziren gaztetxoak Antzuolako frontoitik, eta Irimoegigoena eta Uzarragan zehar egin zuten ibilbidea. Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Mendi Federaziorekin batera, Arrola mendi elkarteak antolatu du ibilaldia.

**ATLETISMO** > ESPAINIAKO TXAPELKETA

# Yerai Varelak ez zuen proba bukatu Caceresen

Lehenengo itzulian utzi zuen oñatiarrak Espainiako Kros Txapelketa

**M.B.** > BERGARA
Penatuta itzuli zen etxera Yerai Varela korrikalari oñatiarra. Euskadiko Txapelketan lortutako hirugarren tokiari esker lortu zuen Espainiako Txapelketan parte hartzeko eskubidea. Baina, atzo Caceresen jokatutako txapelketa lehen itzulian utzi beharra izan zuen.

Beroketa ariketak egiterakoan barea zuela nabaritu arren, promesa mailako lasterketan irteera hartu zuen korrikalari oñatiarrak. Bada, lehen itzulia bete orduko, arnasestuka zegoen, eta txapelketa bertan behera utzi zuen.

**PISTA DENBORALDIA**
Kros denboraldia amaituta, aste batzuk barru, pistako denboraldia hasiko da. Euskal Herriko Atletismo Federazioari esker, Aste Santuan, Yerai Varelak Segovian kontzentrazio batean parte hartuko du, pista denboraldia prestatzeko.

**XAKEA** > LIGAKO AZKEN JARDUNALDIA

# Aretxabaletak ohorezko mailari eutsi dio, baina Arrasate jaitsi egin da

Aretxabaletako Arlutzek puntu bakarra nahiko zuen mailari eusteko; 2-2 egin zuen Abadiñorekin

**A.G.** > BERGARA
Aretxabaletako Arlutzek beste urte batzuetan baino zailtasun gutxiago izan du aurten: "Azken jardunaldiari begira egon gara, baina puntu bakarra nahikoa geneukan mailari eusteko", esan digu Aitor Alkaidek. Zapatuan Abadiñorekin 2-2 berdindu ostean, Euskadiko ohorezko mailari eutsiko dio Arlutzek.

**ARRASATEK MAILA GALDU DU**
Arrasate, berriz, Euskadiko lehenengo mailatik Gipuzkoako preferente mailara jaitsi da. Azken jardunaldian, Eguidazu taldearen aurka lortutako 2,5 puntuak ez zituzten nahikoa izan arrasatearrek mailari eusteko. Arrasate San Andres taldea sailkapeneko 8. postuan geratu da; modu horretan, maila galdu du.



**AMAITU DA** Aste bukaerako jardunaldiarekin, liga amaitu egin da; orain, bakarkako txapelketak hasiko dira. ARTXIBOA

# Zorionak irabazleoi!

**ASTELEHENEKO GOIENKARIAk, bere harpidedunen artean zozketatu dituen "Eutsi" filmaren kamiseta eta sarreren irabazleak honakoak dira:**




**“Eutsi” filmaren 18 kamiseten irabazleak**

- Guadalupe Goikolea Zabala (Arrasate)
- David Blazquez Diaz (Oñati)
- Iñaki Aranzabal Zabala (Arrasate)
- Santiago Ruiz Ansotegi (Osintxu)
- Arantzazu Barrutia Mitxelena (Bergara)
- Angel Mari Idiakez Aranburu (Antzuola)
- Arantzazu Garcia Azkoaga (Arrasate)
- Vicente Markuleta (Oñati)
- Peio Olabe Aranburuzabala (Aretxabaleta)
- Maite Uriarte Isaszelaia (Arrasate)
- Joxe Migel Bolivar Egibar (Bergara)
- Iban Barrutia Inza (Bergara)
- Luis Mari Otxoa Arrese (Aretxabaleta)
- Jose Antonio Elexpuru Unzueta (Aretxabaleta)
- J.J Enekotegi Ruiz de Azua (Eskoriatza)
- Miren Iñarra Balerdi (Bergara)
- Ihintz Bengoa (Arrasate)
- Iñaki Larrañaga Alberdi (Bergara)

**“Eutsi” filma ikusteko 2 sarrera pertsonako**

- Karmen Arabaolaza Alberdi (Arrasate)
- Fernando Calvoecheaga Zabaleta (Bergara)
- Josu Biteri Orobengoa (Eskoriatza)
- Bittor Kortabarria Ortueta (Aramaio)
- Marilu Guridi Arregi (Oñati)

**Sariak jasotzeko pasa zaitezte, martxoaren 12tik aurrera, astelehenetik egubakoitzera (09:00-13:00 / 14:30 - 18:30)**

**Bergara, Antzuola eta Elgetakoak:**
**GOIENKARIA**
**Irizar Jauregia - Barrenkale 33**
**BERGARA**

**Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Oñatikoak:**
**GOIENA**
**Nafarroa Etorbidea 2 - 1. solairua - 5. atea (Saiolan Eraikina)**
**ARRASATE**

ASTELEHENEKO
**Goienkaria**
astelehenean, aste bukaera osoa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA,
urte osoko harpidetza,
35 euroren truke (902 36 38 51)



**> DJ-AK**
Kogollo Party Krew taldearen bigarren urteurreneko jaialdia **> 23**




**> MUSIKA**
*Hitz egin dezagun musikaz* egitaraua antolatu du AEDk Arrasaten **> 24**



**> JAZZA**
Elkano Browning Cream taldeak jazz kontzertua egin zuen 3.60an **> 24**



**> ASTEBURUA**
Patxi Hipolito Oñatiko Gazteria teknikariarekin eman dugu **> 27**

# 'Eutsi!' filmeko musika egin dute Gosek eta Potemkinek

Eguenean, aurre estreinaldia egin zuten Bilbon, eta Gosekoek zuzenean jo zuten

Potemkinekoen abesti bat eta Gosekoen bi sartu ditu Gorritibereak filmean




**AURKEZPENA** Ezkerrean, Ines Osinaga (Gose); eta eskuman, Iker Martinez de Zuazo (Potemkin), disko aurkezpenean, Oihukako kideekin. ARGAZKI PRESS

**EDURNE BURGAÑA** > BERGARA

*Eutsi!* filma asteburuan estreinatu dutela gauza jakina da dagoeneko, eta filmeko musika Gose eta Potemkin taldeek jarri dute. *Eutsi! Gose-Potemkin+12 abesti zutik irauteko* diskoan dago soinu banda.

**"AUKERA BIKAINA"**

Oihuka diskoetxeak Alberto J. Gorritiberearen filmerako musika eskatu zuenean, Gose eta Potemkin taldekoek argi zeukaten: "Aukera bikaina zen", diote.

Gose taldeko abeslari eta trikitilari Ines Osinagak azaldu duenez, "Gorritibereak Goseren abestia entzun zuenean, gustatu egin zitzaion, eta filmerako beste bat egiteko eskatu zigun: *Eutsi!* Hori ere gustatu egin zitzaion, antza, bigarren bat ere eskatu zigulako. Kasu horretan, *Comunicado empresarial para la concordia y el bienestar social* kantuaren bertsioa egin genuen. Eta gainera, pelikulako bideoklipa ere gurekin egin du". Abesti horretan Evaristoren laguntza izan dute.

Lan egiteko era ezberdina izan dela ere azaldu du Gosekoak: "Enkarguz egin dugu lana. Gidoia eman ziguten irakurtzeko, eta guk egindako abestia eta aldaketak aurkeztu behar genituen. Baina hasiera-hasieratik argi geneukan ze musika jarri, eta hasierako maketa azkeneko master bilakatu zen. Nahi genuena egin dugu, eta garrantzitsuagoa dena, Gose izaten jarraitu".

Gainera, egubakoitzean Bilbon egindako aurre estreinaldiko festan, zuzenean jo zuten Gosekoek. "Aukera benetan aparta izan zen; izan ere, sekula gu entzun bariko jende asko zegoen, eta horretarako modua izan zuten".

Potemkinekoak ere pozik daude euren parte-hartzearekin. Taldeko bateria jolea den Iban Idigorasek azaldu duenez, "oso-oso polita izan da esperientzia. Zarama taldearen *Dena ongi dabil* abestiaren bertsioa egiteko eskatu ziguten. Diskoetxekoek proposatu zigutenean, ideia ona iruditu zitzaigun. Lana guk nahi bezala egin genuen eta, orain, gure kantu bat zineman entzuteko aukera edukitzea benetan gauza handia da".

Baina musikari moduan ez ezik, pertsona moduan ere aukera aparta izan delakoan dago Idigoras: "Musika egiteaz gainera, zinemako jendea ezagutu dugu, eta hori ere interesgarria izan da guretako".

## Kamera bigarren laguntzaile aritu da filmean Eraitz Loiti

Egubakoitzean estreinatu zuten *Eutsi!* filmean, eskualdeko batek baino gehiagok parte hartu du. Batzuk musika jartzeko lanean aritu diren bitartean, Eraitz Loiti bergararrak kamera bigarren laguntzaile lanetan parte hartu du.

Baleuko produktoran errealizadore lanak egiten ditu Loitik; han ezagutu zuen Alberto J. Gorritiberea zuzendaria. "Udan filma egin behar zutela, eta laguntza behar zutelako telefonoz deitu zidaten". Lan "gogorra baina polita" izan dela dio Loitik. "Zineman lan egin dudan lehenengo aldia izan da; asko ikasi dut".




Eskuman, Eraitz Loiti errodajeko une baten. GOIENKARIA



MAHAI-INGURUA Arrasateko gaztetxean izango dira ekitaldi guztiak, 19:00etan. ARTXIBOA

JARDUNALDIAK > 'HITZ EGIN DEZAGUN MUSIKAZ'

# Ramones izango du hizpide Gotzon Hermosillak eguenean

'Hitz egin dezagun musikaz' jardunaldien barruan, Hermosillak hitzaldia egingo du eguenean, Arrasateko gaztetxean, 19:00etan

EDURNE BURGAÑA > ARRASATE

AEDk antolatuta, *Hitz egin dezagun musikaz* jardunaldiak egongo dira martxoan zehar Arrasateko gaztetxean. Joan den astean hasi ziren ekimenekin: herriko taldeekin, mahai ingurua egin zuten, musikaz berba egiteko. Eguenean izango da hurrengo hitzordua, 19:00etan.

**BERRIKETALDIAK ETA HITZALDIAK**

Jardunaldiaren barruko ekimen guztiak gaztetxean izango dira, 19:00etan. AEDk gazteei zuzendutako ekimenak egin gura ditu. Gazte horien arreta piztu eta helburua lortzeko, musika aukeratu dute gaitzat.

Gotzon Hermosilla Bilboko kazetariak, eguenean Ramones taldea edukiko du hizpide; eta, bide batez, idatzi duen *Ramones. Familia maitagarria* liburua aurkeztuko du.

Martxoaren 22rako, mahai-inguru bat antolatu dute. Atzera begira jarri eta Arrasateko punk eta oi! musikaren gainean hitz egingo dute hainbat musikari beteranok.

Jardunaldiak amaitzeko ekitaldia Paddy Rekalderen esku egongo da. Martxoaren 24an, The Clash taldearen gainean jardungo du. Gainera, *The Clash punk, rock&roll reggae matxinada* liburua aurkeztuko du.

EUSKARA > TOPAGUNEA FEDERAZIOA

# Topaguneak hilaren 24an egingo du batzar nagusia

Eskualde bilerak bukatuta, Matienako Errota kultur etxean izango da batzarra

E.B. > BERGARA

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioa eskualdeko batzarrak egiten egon da orain gutxira arte. Debagoienean ez dute bilerarik egin; Eibarren egindako bileran parte hartu zuten bertoko elkarteek. Eskualdeko batzarrak amaitu dituzte, eta hurrengo pausoa hilaren 24an egingo duten batzar nagusia da. Jarrita dago hitzordua: Matienan, Errota kultur etxean.

**BATZARREKO KONTUAK**

Batzarreko gaien artean, berezitasun bezala, Topagunearen hamargarren urteurrena egongo da. "Hiru-lau ekitaldi ditugu pentsatuta urtean zehar egiteko, eta Batzar Nagusia aprobetxatuko dugu horren berri emateko", azaldu du Iker Martinez de Lagos Topaguneko idazkariak.

Horretaz gain, "batzarrean sei bazkide berri aurkeztuko ditugu, eta bi zuzendaritzakide berri ere egongo dira", adierazi du Martinez de Lagosek.

Hortik aurrerakoak urteko planarekin lotutakoak izango dira, eta baita estatutu eta barne araudian egingo dituzten aldaketak ere.




BATZARRA Topagunearen iazko batzarra. ARTXIBOA

ANTZERKIA > 'EMAKUMEAK IZARAPEAN'

# Mireia Gabilondoren antzezlan berria estreinatu da

Arrasateko Amaia antzokian ikusteko aukera egongo da datorren domekan

E.B. > BERGARA

Mireia Gabilondo bergarararren *Emakumeak izarapean* azken lana Eibarren estreinatu berri dute. Adin ezberdinetako bost emakumek gizonekin dituzten harremanak kontatzen ditu. Euskaraz dira emanaldi batzuk, eta gaztelaniaz, beste batzuk.

**SEXUA, HIZPIDE**

Umore kutsuarekin egindako antzezlana da Gabilondok zuzentzen duena. Eta bertan, kontuan eduki dituzte "larrutan gutxi, gaizki, erdipurdi, garai batean baino okerrago... edo nola gustatuko litzaigukeen ez jakitearen ondorio diren eguneroko tragediak".

Taula gainean, bost emakume; adin eta gizarte maila ezberdinetakoak bostak. Eta gizon bat. Bakarra. Baina rol ezberdinak jokatzen dituena: aingeru guardakoa, terapeuta, laguna, oroitzapena, aita... Sexuaz eta emakumeen bizitza sexualaz hitz egiteko sortutako antzezlana da.

Teresa Calo, Sara Cozar, Aitziber Garmendia, Beatriz Martinez de Antoñana eta Pilar Rodriguez dira bost emakumeak; Asier Hernandez, gizonezkoa.

Oraingo asteko domekan, hilaren 18an, Arrasateko Amaia aantzokian, *Emakumeak izarapean* ikusteko aukera egongo da.

**'KUTSIDAZU BIDEA, IXABEL'**

Bestalde, Gabilondok zuzendutako *Kutsidazu bidea, Ixabel* telesaila Aste Santu ondoren estreinatuko dute ETB1en.



ZUZENDARIA Mireia Gabilondo bergarararrak zuzentzen du *Emakumeak izarapean* antzezlana. GOIENKARIA


Nahi
Eta izan
Nahi duzun guztirako: etxea berritu, autoa, motoa, bidaia eder bat... kutxan duzu bidea. Urrutirago gabe.
Baldintza bikainetan, eta modurik azkarrenean:
Telefonoz: 902 10 32 10
kutxanet bidez
Gure bulegoetan
Eta kutxazainetan
credikutxa
Gauzak, erraz.
www.kutxa.net
kutxa
zer nahi duzu bihar?

**ELEKTRO FESTA** > KOGOLLO PARTY KREW-REN 2. URTEMUGA

# Musika alemaniarra ez zuten ulertu zapatu gauean Bergarako Jam aretoan

Bi DJ etorri ziren zapatu gauean Jam aretoko festara: Ata eta Pete Herbert

---

Musikari laguntzeko, proiekzioak egin zituzten, eta festarako aretoa apaindu zuten




**DJ BALZA** Kogollo Party Krew-ko DJ Balza, jaialdian musika jartzen. JOSETXO ARANTZABAL

**A. G.** > BERGARA

Bergarako Kogollo Party Krew kolektiboaren bigarren urteurrena ospatzeko, festa antolatu zuten zapatuan, Jam aretoan. Bilboko Elektronische eta Donostiako Meataka kolektiboekin elkarlanean aritu ziren festa antolatzeko orduan.

**PARRANDA GOGOA GALDU**

Urtemuga ospatzeko, Frankfurtetik eta Londrestik etorritako bi DJ aritu ziren festan: Ata, lehena, eta Pete Herbert, bigarrena. Baina biek ez zuten lortu espero izandako arrakasta Bergaran; jendeari ez zitzaion gustatu DJ batek jarritako musika.

Gauerdian hasitako festan, 500 lagun inguru bildu zen. Festa giro oso ona zegoen, eta proiekzioak benetan ederrak izan ziren. Dekorazioa ere aldatu egin zuten Kogollo Party Krew-koek Jam aretoan egun berezirako.

Techno ez hain gogorretik hasi eta housera arteko hainbat estilok gozatu zituzten belarriak, eta parrandari erritmo ederra eman zioten berehala.

Baina alemaniarra, eta musika alemana, ez dira ulertzen Bergaran, antza denez. Goizeko ordu txikietan, eta Jam bezalako leku batean, Ata alemaniarrak ekarritako musika jendeak gogo txarrez hartu zuen. Musika geldoa zen, xamurra, eta bertan bildutako askori ez zitzaion batere gustatu. Gorputzak beste zerbait eskatzen zien. Parranda giroan, erritmo azkarrarekin mugitzera ohituta egonda, alemaniarraren elektro estiloa entzunda parrandarako gogoa galdu zuten.

Baina, Ataren alde, esan beharra dago Jam aretoan zeuden guztiek ez dutela iritzi bera, eta hark jarritako musika gustura entzuten egon zenik ere badagoela, gutxi izan baziren ere.

Londrestik etorritako Pete Herberten musika bai ulertu zuela jendeak. Funky eta house ukituak zituzten jarritako diskoek, eta bertan zeudenei hobeto sartu zitzaien belarrietatik. Gorputzak eskatzen zienarekin hobeto konektatzen zuten erritmook.

Airean entzuten zen musikari irudiak jartzeko, Donostiatik etorritako Meataka kolektibokoak eta Kogollo Party Krewko kide bat ere irudiak jartzen aritu ziren.

Donostiakoak zuzenean egindako proiekzioekin aritu ziren: lanean ari ziren DJak edo kaleko giroa hartzen saiatu ziren, eta baita lortu ere. Asko jantzi zuten festa irudiek, eta Ataren musika geldo eta zozoari piper eta gatz ukitua eman eta, bide batez, hura ahazteko ere balio izan zuten. Bestalde, KPK-koek eta gainerako DJ euskaldunek ere musika jarri zuten.

---

**JAZZA** > 3.60KO KONTZERTUAK

# Jazz estilo ezberdinek dantzan jarri zuten 3.60a

The Cherry Boppers bilbotarrek bizitasuna eta dantza ekarri zuten; Elkano Browning Creamek 'glamour'-a



**ELKANO BROWNING CREAM** Dantzarako musika dotorea egin zuen taldeak. JOSETXO ARANTZABAL

**A. G.** > ARRASATE

Arrasateko 3.60 aretoan orain arte egon diren kontzertuetatik onenetarikoa entzuteko parada egon zen herenegun. The Cherry Boppers eta Elkano Browning Cream taldeek euren onena erakutsi zuten bertan. Publiko guztiek gustuko duten musika izan ez arren, zaleentzako musika benetan ona eskaini zuten bi taldeek: jazz, funky, soul estiloak.

**DANTZAN**

Kontzertuan, 80 bat lagun batu zen, eta taldeek sekulako giroa jarri zuten. The Cherry Boppersekoak hasi ziren, eta batutako jendea oso gustura egon zen entzuten. Konexio handia lortu zuten bilbotarrek entzuleekin.

Santutxuko taldeak bi urte ditu, baina dagoeneko ahoz aho dabil euren izena. Arrazoia: eurek eta euren musikak sortzen duten freskotasuna eta bizitasuna. Jazz-funka egiten dute, acid-funkaren ukituarekin. Berotasuna ematen dute musikarekin, eta dantza eragin. Jazz-funka gustuko duen edonork kontuan hartzeko taldea.

Ostean, Elkano Browning Creamekoak aritu ziren. Jazz, bossa nova eta funk doinuak batzen dituen taldea da. Estatubatuar batek, frantziar batek eta donostiar batek eratzen dute taldea. Eta herenegungo kontzertuan, kide berri bat aritu zen eurekin. Izan ere, Alex Ubago, Bide Ertzean eta Mikel Erentxun bezalako musikariekin aritzen den bateria jolea ere aritu zen.

Musika irekia da; estilo ugari lantzen dituzte. Eklektikoak dira, baina hari komun bat daukate: klub musika da, eta dantzagarria. Gauza txarretaz ahaztu eta onetan kontzentratzeko modukoa da.

Estilo profesionalagoa erakutsi zuten bigarrenek; *glamour* ukituarekin, baina elitismoan erori barik.

ASTEBURUA...

## Patxi Hipolitorekin



JOSETXO ARANTZABAL

# "Orain, 20 hilabeteko alabaren beharren inguruan egiten dugu bizimodua"

Alaba eduki zuenetik, zaletasunak alde batera utzita dauzka gaztelekuko langileak

Oñatiko historiari buruzko testuak transkribatzen aritzen da ahal duenean

**EDURNE BURGAÑA** > OÑATI

Patxi Hipolito Oñatiko gaztelekuko teknikaria da. Gaztelekuko ekintza batzuk asteburuan antolatzen badira ere, gustuko dituen gauzendako tartea egitea lortzen du Hipolitok.

**ALABATXOA**

Donostiarra da gaztelekuko teknikaria, baina Oñatin bizi da. "Gaur egun, familia eta lana dira betebeharrik garrantzitsuenak. Horiekin batera, aukera edukiz gero, Oñatiko eta Donostiako lagunak ere inportanteak dira; eta, beste maila batean, zaletasun aldetik, motibazio eta interes antzerakoak dituzten pertsonak".

Asteburuetan egiten zituen gauza asko eta asko alde batera utzi zituen orain 20 hilabete. Arrazoia: alabatxoa. "Aita izan naizenetik, alabaren beharren inguruan egiten dut bizimodua. Asteburuetan, Oñatiko familiarekin egon, eta Donostiakoa bisitatzeko denbora edukitzea gustatzen zaigu hiruroi. Beharrezkoa ikusten dugu hori", azaldu du Hipolitok.

Joan den asteburua, adibidez, lagun artean eman du gaztelekuko teknikariak: "Oñatitik kanpo bizi diren lagunekin elkartu ginen zapatu goizean. Domekan, familia guztiarekin batera, Edurne emaztearen aitaren urtebetetzea ospatu genuen".

Etxean ume txikia duten familia guztien bizimodua antzekoa delakoan dago Patxi Hipolito. Bere kasuan, behintzat, bai aste barruan eta baita asteburuan ere, familiak tarte handia hartzen du. "Gaur egun, ume txikia daukagun guraso gehienok antzerako bizimodua daramagulakoan nago. Kasu gehienetan, eta ahal izanez gero, familiak tarterik handiena hartzea normala da. Edozein gurasorentzat, inportanteena horixe delakoan nago: familia", diosku berak.

Baina, familiaz gain, bere buruarentzako ere hartzen du tartea Oñatiko gaztelekuko teknikariak: "Familiak eta beharrak uzten badidate, nire gauzetan denbora luzean aritzen naiz, konturatu ere egin gabe. Euskal Herriari eta euskaldunei buruzko historia liburuak irakurtzen, adibidez, orduak eta orduak ematen ditut. Gainera, Unibertsitateko protokolo artxibora ere joaten naiz eta, bertan, Oñatiko historiari buruzko XVI. eta XVII. mendeetako dokumentuak transkribatzen ditut".

Hala ere, gauzak ez dira beti horrela izan Hipolitoren bizitzan: "Garai batean, orain hiru edo lau urte, denbora libre gehiago edukitzen nuen, eta proiektu askotan sartuta egoten nintzen. Orain, ostera, aita izan nintzenetik, familiak beste dimentsio bat hartu du niretako".

Bestalde, aurreko urteekin alderatuta, laneko egoera aldatu egin zaiola ere kontatu du Hipolitok: "Lan egoera hobetu egin zait gaztelekuan. Gaur egun, lan gutxiago egiten dut asteburuetan. Dena den, asteburu gehienetan, lana guztiz albo batera uztea zaila izaten da, sarritan ekintzak egubakoitz, zapatu eta domeketan antolatzen ditugulako".

ADIN KONTUAK...

### Gaztelekuko teknikaria izateak gazte izatea eskatzen du nahi eta nahi ez?

Patxi Hipolito Oñatiko gaztelekuko teknikaria da. Baina adin jakin batzuen artean bakarrik izan daiteke gazteleku izena duen toki bateko langile? gaztelekua, gazteentzako lekua bakarrik ote da? Ala gazteen arduradun lanetan heldu batek egon behar du derrigor? Hipolitok horren gaineko anekdota kontatu digu.

"Orain hamabost urte, gaztelekuan lan egin nahi zuen pertsonak gaztea izan behar zuela uste nuen. Oñatiko lagun min batek, garai hartan, oker nengoela esan zidan. Eta orain, argi daukat hasieratik berak eduki duela arrazoia. Pertsona gaztea izatea soilik ez da arrazoi nahikoa gazteleku deitzen den toki batean lan egiteko. Eta, era berean, edozein pertsona helduk ere ezin du bertan lan egin".

Kontuak kontu, eta adinak adin, Patxi Hipolito da gaur egun Oñatiko gaztelekuko teknikaria.

## gazte zerbitzuak

### LANA

**> Begiraleen lan poltsa.** Hainbat Eskaintza *http://www.gipuzkoagazteria.net* uda webgunean.

**> Begiraleak.** Mondragon Lingua. Uztailean Euskadiko hainbat lekutan ingeleseko begiralea izateko lan eskaintza. Epea: martxoak 21.

**> Administrari laguntzaile.** Bergarako Udala. Ongizate Zerbitzurako aldi baterako administrari laguntzailea kontratatu eta lan poltsa osatzeko lehiaketa-oposizioa. Eskola graduatua, L.H.1 edo parekoa den titulua. 3. Hizkuntz Eskakizuna izatea. Epea: 2007ko martxoaren 24a arte.

**> Musika.** EGO-Euskadiko Gazte Orkestra Fundazioa. EGOrako entzunaldiak 16 eta 27 urte bitarteko gazteentzat. Epea: martxoaren 21a.

**> Udaltzainak.** Donostiako Udala. 27 udaltzain lanpostu betetzeko oposiziolehiaketa. Epea: martxoaren 21a.

**> Gazteria dinamizatzailea.** Zestoako Udala. Zestoako Udalean Gazteria Dinamizatzaile bat kontratatzeko oposizioa. Epea: martxoak 20.

### BEKAK

**> Literatura.** Beasaingo Udala, CAF, Elkar. Literatura sorkuntzako Igartza Beka. Narratiba lanak, eleberriak edo ipun-bildumak. Originalak eta euskaraz idatziak. Epea: ekainaren 29a.

### EKINTZAK

**> Sagarrondotik.** Sagardoaren Kultura Sustatzeko Elkartea (SKSE). Sagarrondotik Jaialdia 2007. Kontzertuak Hernanin eta Sagardo Eguna Urnietan. Martxoaren 16tik 18ra arte.

### IKASTAROAK

**> Sorospena.** DYA Gipuzkoa. Sorospen eta lehen laguntzako ikastaroa Donostian. Martxoak 12tik 30 era. Epea: Plazak bete arte.

### LEHIAKETAK

**> Poesia eta eleberria.** Irungo Udala, Kutxa . Kutxa Irungo Hiria Literatura Sariak 2007. Euskarazko eta gaztelaniazko lanak. Epea: ekainaren 10a.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

# IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01**

**sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 18 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIAN BIETAN, ARGITARATUZ GERO 25 EURO (+BEZ).**

GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Baserri baten dagoen etxebizitza salgai. Eguzkitsua eta lursailarekin. Telefonoa: 943 65 42 44.

**Arrasate.** Bi logela. Berogailua. Guztiz jantzita. Erdialdean. 666 40 51 54.

**Arrasate.** Etxea salgai. 93 m2. Hiru logela eta ganbara. Garajea aukeran. Telefonoa:Deitu 670 42 21 08 telefonora.

**Arrasate.** Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldea, trastelekua eta hiru balkoi. Oso eguzkitsua. 652 73 22 83.

**Bergara.** Boni Laskurain kalean. Eguzkitsua, altzariekin. Deitu 628 26 65 77 telefonora.

**Bergara.** Erdialdean. 50 metro koadroko etxebizitza salgai. Bizitzeko gertu. 120.000 euro. 679 45 57 62.

**Bergara.** Etxea salgai San Lorentzon. Garajea aukeran. Deitu 656 74 80 47 telefonora.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Zubiaurren. Berrituta dago, berogailua dauka eta baita ganbara ere. Deitu 943 28 76 36 telefonora.

**Bergara.** Ibargarai kalean. 70 metro koadro. Berria, eguzkitsua, dena kanpoaldera eta balkoiarekin. 659 04 37 70.

**Bergara.** Labegaraietan. Guztiz berritua, eguzkitsua, ikuspegi onak. Bi logela, sukaldea, jangela, berogailua, bainugela hidromasajearekin. Bizi izatera sartzeko. 196.000 euro, negoziagarriak. Telefonoa: 635 71 04 55.

**Bergara.** Simon Arrietan 57 m2-ko etxea igogailuarekin, 2 logela, egongela, sukaldea, trastelekua. 649 63 11 74.

**Bergara.** Simon Arrietan. 80 metro koadro. Bi logela, jangela, sukaldea, bainugela bat eta berogailua gas naturalarekin, indibiduala. Igogailua. Balkoi ederra. 43 milioi. Telefonoa: 664 73 49 60.

**Bergara.** Zabalotegin, 50 metro koadroko etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela eta 2 logela. 14 metro koadroko sotoa. Berritua. Telefonoa: 635 72 67 11.

**Elgeta.** Hiru gela, ganbara, igogailua. 138.232 euro. Telefonoa: 946 81 71 97.

**Onati.** Arantzazu kalean. Leku eta egoera onean. Sukaldea, egongela, 2 logela, 2 bainu eta ganbara. Garajea aukeran. Deitu 943 71 62 58 telefonora.

**Oñati.** Etxea salgai. Hiru gela, bi bainugela, sukaldea, sala, ganbara. Garajea aukeran. Deitu 685 77 28 05 telefonora.

### 102. EROSI

**Arrasaten,** Zigorrola auzoan 3 gelako etxebizitza behar da. 653 71 64 79.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** 3 logela, 2 bainu, sukaldea eta egongela. Telefonoa: 645 70 71 23.

**Bergara.** Erdialdean. Hiru logela. 685 72 51 58.

**Bergaran.** Erdialdean. Simon Arrietan. 80 metro koadro. 664 73 49 60.

**Cauterets.** Frantziako Pirinioetan apartamentua errentan ematen da. Teleferiko ondoan. Lau lagunendako. Prezio oso onean. Telefonoa: 625 70 61 91.

**La Barrosa-Chiclana** (Cadiz). Apartamentua errentan ematen da urbanizazio berri batean. Leku zoragarria. La Barrosa hondartzatik oso gertu. Telefonoa: 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Noja.** Duplexa hondartzan. Aste Santua eta uda. Telefonoa: 696 90 94 43.

**Peñiscolan** Aste Santurako apartamentu bat errentan ematen da. 4-5 pertsonarentzako. 945 29 33 80.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Lau neska ikasle etxebizitza bila dabiltza unibertsitatetik gertu. Telefonoa: 645 73 89 34 edo 635 71 26 27.

**Bergara.** Bikote bat errentan hartzeko etxe bila dabil. 500 euro inguru ordaintzeko gertu. Josu edo Joana. 669 56 56 87 edo 648 81 67 21.

**Bergara.** Etxea errentan hartuko nuke. Telefonoa: 609 38 86 47.

**Bikote** batek Aretxabaletan, Eskoriatzan edo Arrasaten apartamentua errentan hartuko luke. Telefonoa: 660 03 16 22.

**Debagoiena.** Errentan hartzeko etxebizitza txikia behar dut. 650 11 15 28.

**Debagoiena.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. Telefonoa:679 52 29 69.

**Debagoiena.** Hiru logeladun etxebizitza hartuko genuke errentan. 650 11 15 28.

**Debagoiena.** Senar-emazteak gara eta etxebizitza behar dugu errentan hartzeko. Ez dugu seme-alabarik. Kanpotarrak gara. Irekiak. 696 38 10 07 edo 649 63 23 24.

**Familia** batek etxebizitza hartuko luke errentan Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatzan. 617 69 07 52.

**Oñati.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan. Telefonoa:943 81 09 26 edo 650 56 39 92.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Gela bat errentan ematen da etxea osatzeko. Durana kalean. 616 75 41 30.

**Arrasate.** Uribe auzoan etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 685 73 67 54.

**Oñati.** Logela errentan emango nuke. 617 44 85 19.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Garaje bikoitza salgai erdialdean. Hari atxikitutako lokala errentan hartzeko aukera dago. 625 70 86 50.

**Bergara.** Garaje itxia salgai, San Lorentzon. 943 76 40 05.

**Bergara.** Zubiaurren garajea salgai. 37 metro koadro. 606 65 97 82.

**Oñati.** Garajea salgai San Lorentzo auzoan. Telefonoa: 678 80 87 53.

### 202. EROSI

**Bergara.** Garajea erosiko nuke Koldo Eleizalden. Telefonoa: 646 07 48 96.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasaten** Garaje itxia. Uarkapen. 680 77 64 05.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**BERGARA**
**Avenida tabernak zerbitzaria behar du. Lan kontratuarekin.**
**943 76 20 46**
**656 78 12 04**
**Iñigo**

**OÑATI**
**Neska euskalduna behar da kafetegi batetan lan egiteko.**
**635 70 91 78**

**Oñati.** Etxea garbitzeko lagun bat behar da. Telefonoa: 943 71 61 48.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakumea esperientziarekin gertu pertsona nagusiak zaintzeko edo etxeko garbiketak egiteko. Telefonoa: 943 08 12 80.

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusiak zaindu edo etxeko nahiz tabernako garbiketak egiteko. Arratsaldeetan, orduka. Esperientziarekin. 943 77 16 73.

**Bergara.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zaintzeko. 665 75 41 32.

**Debagoiena.** Emakume batek umeak zainduko lituzke arratsaldeetan. Telefonoa: 686 02 33 03.

**Debagoiena.** Emakume gazteak arratsaldez lan egingo luke. 636 35 29 80.

**Debagoiena.** Emakumea astelehenetik ostiralera eguneko menuak zerbitzatzeko prest. 652 75 95 64.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egin edo umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 639 94 48 65.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egin edo umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 648 81 67 21.

**Debagoiena.** Gizonezkoa lanerako gertu. Edozein lan egingo luke: mekanikari laguntzaile, argiketari, arotz edo banatzaile. Lanaldi osoa hartuko luke, gauez edo egunez. Telefonoa: 638 43 80 27 edo 619 34 71 85.

**Debagoiena.** Gizonezkoak apalbetetzaile moduan lan egingo luke. Fausto. Telefonoa: 647 49 72 90.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu gaixoak, umeak edo nagusiak zaintzeko. Baita ere garbiketak egiteko. Laguntzaile titulua daukat. Telefonoa: 606 64 22 84.

**Debagoiena.** Neska gertu ostalaritzan lan egiteko. Maria. Telefonoa: 943 71 21 15 edo 679 58 41 92.

**Debagoiena.** Zerbitzari lanerako gertu mutil bat. Telefonoa: 653 85 48 59.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Aretxabaleta.** Ingeleseko eskola partikularrak emateko pertsona bat behar da. Telefonoa: 605 74 43 64.

**Kimika.** Batxilergoko 2. maila egiten ari den neska batek kimikako eskola partikularrak hartuko lituzke Aramaio edo Arrasaten. Telefonoa: 945 44 53 60.

### 502. EMAN

**Bergara.** Fisika eta matematika eskolak ematen ditut. Baita unibertsitate mailakoak ere. Marco. Telefonoa: 696 38 10 07.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Citroën** C3, HDI 1.4 autoa salgai. 42.000 Km. 2003ko martxokoa. Aire girotua. Deitu 685 71 80 66 telefonora.

**Derby Senda** Supermotar. 900 eurotan salgai. 50 $cm^3$, 2002koa. 15.000 km. Deitu arratsaldez. Telefonoa: 616 68 32 54.

**Hagunak (llantak)** saltzen ditut: R19 16 v lehenengo modeloko 5 hagun. Peugeot 250 GTI modeloko 4 hagun. Telefonoa: 658 72 11 49.

**Opel Vivaro** furgoneta salgai. Hornitua. 2003koa. 28.000 km. 943 71 61 00.

**Peugeot 106** salgai. Diesela. Bost ate, 140.000 km, egoera onean. 2.400 euro. Jon. 669 17 01 72.

**Suzuki SJ** 410 autoa salgai. 1.000 cm3. 2.500 euro. 651 59 64 55.

**Volkswagen** Sharan 1.8 Turbo. Gasolinazkoa. 1999koa; 121.000 kilometro, ABS, aire-girogailua eta aire-poltsak. Oso egoera onean. 7.500 euro. 645 73 97 69.

**Yamaha 250** motorra salgai. 2001ekoa. 3.000 km, oso egoera onean. Egoitz. Telefonoa: 635 71 67 06.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Antzinako** altzariak salgai: oheak, armairuak, mahaitxoak eta abar. Eraberritu beharrean daude. 615 74 13 47.

**Argazki kamera.** Canon EOS 300; 28-90 mm-ko objektiboa. Poltsa opari. 150 euro. 639 90 36 18.

**Argazki kamera.** Olympus Camedia, D 390. 2.0 megapixel; 2.5x zoom digitala eta bi memoria txartel. 60 euro. 639 90 36 18.

**Arrasate.** Kanpin denda (120,20 €) eta sukalde denda (30 €) salgai. 2 logela eta pasillo zabala. 4 pertsonarendako. 943 79 57 64.

**Jaurnartzerako** almirante jantzia. Neurria: 8. 150 euro. Deitu telefono honetara: 943 77 16 73.

**Nokia 6280** poltsikoko telefonoa salgai. Vodafone. Estreinatu bakoa. Gurutze. Telefonoa: 679 86 51 36.

**Ume-kotxea** salgai. Silver Cross markakoa. Urdina. Egoera oso onean. Telefonoa: 615 74 13 47.

### 806. GALDU

**Bergara.** Espoloian, Aratusteetako astelehenean patinete bat desagertu zen. Telefonoa: 943 76 08 06 edo 606 73 92 17.

**Biolina** galdu nuen Oñatiko musika eskolan otsailaren 13an. Urte ugari dituen eskuz eginiko biolina da. Egurrean zati batzuk falta zaizkio. Duen balio ekonomikoaz gain, lanerako behar dut eta balio sentimental handia du. Aurkitzen duenari sari bat emateko prest nago. 943 78 31 74 edo 686 60 48 56.

Martxoak 12a:
121. zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen
txokoa

**Zorionak irabazleoi!**

Gaur, martxoak 12, egin den zozketako saridunak azpiko zerrendan datoz. Zu tartean bazaude, zorionak!
*Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke hurrengo zozketako irabazleetako bat!**

**Sariduna**

**SANYO HDP-M3000 HDD**
**Audio Playar-a.**
• Ramon Osinaga Egidazu (Arrasate)



**122. zozketako saria**

• Martxoaren 23an, egubakoitza, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango den **MIKEL URDANAGARINEN** kontzertua ikusteko lau sarrera. (saridun bakoitzari bi gonbidapen).

**Harpidedun ez bazara...**

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:00etara.

Harpidetza kuota:
35 euro
2007 bukaera arte.

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## astea GOITBn

### Astelehena, 12



**> Saharari buruzko erreportajea**
**21:45**

Arizmendi eta Txantxiku ikastoletako haurrekin batera, GOITBko bi langilek Saharara egindako bidaiaren gaineko saioa izango da.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Teknopolis.
**14:15** Iragana gogoratuz.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Ilunpean
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Klip@.
**16:00** Bizitegia.
**16:15** Jazmina.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ur eta Lur.
**18:15** Eltze beroa.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Erreportaia.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Berriak.
**21:15** Harmaillatik.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Erreportajea
**22:15** Telesaila.
**22:45** Berriak.
**23:15** Didjeridu.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Ikusmira.
**00:15** Emisio amaiera.

### Martitzena, 13



**> Mahai-ingurua izango dugu 'Berbaire' saioan**
**21:15**

Gorka Etxabek gidaturik, Elena Laka, Maite Aristegi, Juan Kruz Mendizabal eta Ander Elortondo izango dira protagonistak *Berbaire* saioan.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Harmailatik.
**14:15** Erreportajea.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Eltze beroa.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Hasiberriak
**16:15** Ikusmira
**16:45** Albisteak.
**17:15** Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Ilunpean .
**18:15** Klip@.
**18:30** Bizitegia.
**18:45** Albisteak.
19:15 Harmailatik.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.
**20:45** Berriak.
**21:15** Berbaire.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Erreportajea
**22:15** Harmaillatik.
**22:45** Berriak.
**23:15** Iragana gogoratuz.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Musikantoi.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 14



**> Gabiriko *rallysprint*-a ikusteko aukera**
**21:45**

Urtero antolatzen da Gabiritik Legazpirako bidea egiten duen *rally*-a. Goierri Telebistak irudiak hartu ditu aurten eta GOITBk eskainiko ditu.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Berbaire.
**14:15** Erreportajea.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Ur eta lur
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Hasiberriak.
**16:15** Eltze beroa.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Harmailatik.
**18:15** Eltze beroa.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Musikantoi.
**19:45** Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Berriak.
**21:15** Erreportajea.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Gabiriko rallysprinta.
**22:15** Telesaila.
**22:45** Berriak.
**23:15** Berbaire.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Ur eta lur.
**00:15** Emisio amaiera

### Eguena, 15



**> 'Didjeridu' saioa indartsu dator beste behin**
**22:15**

Amagoia Lasagabasterrek aurkezten duen programan, denetarik izango dugu: Interneteko berriak, zinema, elkarrizketak, eta abar.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Gabiriko Rallysprinta.
**14:15** Erreportajea.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:15** Eltze beroa.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Teknopolis.
**16:15** Ikusmira
**16:45** Albisteak.
**17:15** Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Eltze beroa .
**18:15** Teknopolis.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Bizitegia eta Klip@.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Fernando Amezketarra.
**20:45** Berriak.
**21:15** Berbaire.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Musikantoi
**22:15** Didjeridu.
**22:45** Berriak.
**23:15** Erreportajea.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Ilunpean.
**00:15** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 16



**> Eskualdeko berriak, GOITBko albistegietan**
**14:45, 19:45**

Egunero bi saiotan, Debagoieneko albisteak ekartzen dizkigute etxera Larraitz Zeberio eta Goiatz Arana (argazkian) kazetariek.

**13:15** Emisio hasiera.
**13:20** Marrazki bizidunak: Calimero.
**13:45** Gaurkoak.
**13:47** Berbaire.
**14:15** Musikantoi.
**14:45** Albiste aurrerapena.
**15:00** Iragana gogoratuz.
**15:45** Gaurkoak.
**15:47** Didjeridu.
**16:15** Eltze beroa.
**16:45** Albisteak.
**17:15** Calimero.
**17:45** Gaurkoak.
**17:47** Erreportaia.
**18:15** Gabiriko Rallysprinta.
**18:45** Albisteak.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Berriak.
**20:15** Marrazki bizidunak: Calimero.
**20:45** Berriak.
**21:15** Teknopolis.
**21:45** Gaurkoak.
**21:47** Hitz bitan
**22:15** Ilunpean.
**22:45** Berriak.
**23:15** Berbaire.
**22:45** Gaurkoak.
**23:30** Jazmina.
**00:15** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

FM 107.7

**> Eliza kontuak izango ditugu**
**11:15**

*Igo autobusera!* saioan, 11:15ean, Pedro Uranga Musakolako abadea izango dute. Santa Teresa elizan obrak egin behar dituztela eta, elizako ezaugarrien eta bitxikerien inguruan arituko dira berbetan abade jaunarekin.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Loratediaren geltokia
Zozketak
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra
**17:15** Zorion agurren tartea (errepikapena)

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua
Aste osoan barrena egindako elkarrizketen eta gainontzeko edukien laburpena

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua

## gertutik



Beatriz Zabalondo
EIZIEko presidentea

## "Itzultzaileen lana ez da normalean behar bezala baloratzen"

GOIENKARIA > BERGARA

**Beatriz Zabalondo Elgetan jaio zen eta Donostian egin zituen Ingeniaritza eta Euskal Filologia ikasketak. Bukatzean, ETBn hasi zen bikoizketarako itzulpengintzan, eta *Egunkaria*-n ibili zen gero. Bien bitartean, Kazetaritza ikasketak egin zituen eta, egun, HUHEZIko irakasle da. Bestalde, EIZIEko presidente izendatu zuten otsailaren 17an.**

**Zein zen zure lana *Egunkaria*-n eta *Berria*-n?**

Kazetariek idatzitako testuak zuzentzea, itzulpenak egitea, inoiz testuak berridaztea, eta kazetariei laguntza ematea. Kazetarien Trebakuntza taldean ere parte hartu genuen. Eta egin dudan azkena *Estilo Liburua* atontzeko lantaldean aritzea da.

**Kazetariak idazten du albistea, ala zuzentzaileak ere bai?**

Kazetaria da albistearen guraso. Gaia aukeratzea, ikuspuntua, argazkirik eramango duen… horiek guztiak kazetariaren erabakiak dira, eta zuzentzaileak hor ez du hitzik. Baina zuzentzailearen eskura etorritakoan… denetik dago; idatzi askok zuzentzailearen orraztu handi samarra izaten dute.

**Itzultzaileen lana baloratzen da?**

Normalean, ez; zuzentzaileak ondo egiten badu bere lana, inork gutxik eskertuko dio. Orain, akatsen bat egiten badu, orduan kontuak! (barre) Baina, tira, guk zortea izan dugu: esker oneko lankide asko izan dugu.

**Zeintzuk dira idazleen eta itzultzaileen arteko desberdintasunak?**

Idazlea sortzaile da uneoro. Itzultzaileak ere badu sortzailetik, baina istorioa eta gaia, esate baterako, emanda datozkio. Halere, gerta liteke, hizkeraeta moldatzean, sortze lana ere egin behar izatea.

Hizkuntza da bi ofizioetako lanabesa. Baina lanabesa ez da bietan era berean erabiltzen.

**EIZIEko presidente izendatu zaituzte. Jardun horretan, zeintzuk dira zure erronka nagusiak?**

EIZIEk lehendik dakarren martxari jarraitzea, sartu berri den gazte jendeari bidea erakustea eta itzultzaile, zuzentzaile eta interpreteen lana gizarteratzea.

## asteko hitzorduak

### Merienda



ELGETA

**> Elgetako gaztetxearen urteurrena dela eta, festa giroa izango da**

Elgetako gaztetxeak hamaika urte betetzen dituenez, oraingo zapatuan, hilak 17, jai giroa nagusituko da herrian. 13:00etan, triki-poteoa izango da; 14:30ean, bazkaria bertsolariekin, eta gero, kontzertuak ere izango dira.

### Kontzertua



OÑATI

**> Oñatiko musika bandak kontzertua eskainiko du Santa Ana Antzokian**

Hilero bezala, Oñatiko musika bandak kontzertua eskainiko du Santa Ana antzokian. Emanaldia oraingo domekan izango da, arratsaldeko ordubiak eta erdietan. Datorren hilean ere, apirilaren 22an, beste kontzertu bat izango da.

### Zinema



ARRASATE

**> 'Noche en el museo' filma emango dute gaur, adin guztietarako**

Gaur, astelehena, film dibertigarria emango dute Amaia antzokian: *Noche en el museo*. 20:30ean emango dute. Historia Naturaleko museoko zaindari bat museoan dauden irudiak eta animaliak bizirik daudela konturatuko da.

kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

# Ingelesek ere karapaixoa jango dute?

Egubakoitzeko GOIENKARIAn **Jokin Etxeberria**k gogorarazi zigun bezala, karapaixo garaian gaude. Garaia heldu da, eta nik, aurten ere, jaso dut nirea. Ohiturak dioenaren arabera, besoetakoa ezkondu bitartean egin beharreko erregalua ei da. Oraingoz, behintzat, datozen urteetan jasoko dudala uste dut. Ez dakit zer pentsatuko duen ama pontekoak; beharbada, dagoeneko urrezko ezkongairen baten bila hasia da!

Azken egunetan, korrikari mordoa dabil gureko errepideetan. Hasieran, **Korrika**rako prestatzen ote zabiltzan pentsatu nuen. Badakizue, apustua gure herriko kirol gustukoena da: ezetz 20 minututan igo **Udana** zapatuan goizeko 2etan!, edo, nik baietz, 15 *kubata* edan ondoren, domekan, goizeko 8etan **Elgeta** igo! Baina ez; errepidean korrika ari direnak datorren astean Oñatin jokatuko den **Duatloia** prestatzen ari direla konturatu naiz. Haiek bai meritua!

**"Datorren astean, Oñatin duatloia jokatuko da; korrikalariak hasi dira prestatzen"**

**Oxfordeko Unibertsitate**ko ikerketa baten arabera, ingelesek eta irlandarrek euskaldun jatorria dute. Orain 16.000 urte **Erresuma Batu**ra iritsitako euskaldunen eragina zeltena eta normandiarrena baino handiago izan zen. Karapaixoa asmatzea nahikoa ez, eta orain, hau!

asteburuko albuma









**Emakumearen Eguna.** Martxoaren 8a Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna izanik, eguenean hasita, asteburuan emakumeen festa giroko ospakizunak izan dira gurean. Elgetan, txokolatejatea izan zuten eguenean bertan herriko emakumeek Espaloian, Udalaren eskutik. Txokolatea jateaz gain, mahaiaren bueltan berriketan jarduteko ere aukera polita izan zen eurendako. Bergarako emakumeek ere txokolate janerako egun bera aukeratu zuten. Artatse elkartean merienda egin ostean, dantzarako aukera ere izan zuten, Juan Luis Lekunberriren doinuek lagunduta. Aramaioko Itur Zuri elkarteko andreek jokoa eta jana uztartu zituzten barikuan. Bingoan jardun zuten lehenengo, eskolako jangelan, eta, opariak jaso ostean, bertatik mugitu gabe, denek batera afaldu zuten euren eguna lagun giroan ospatzeko. Gatzagako Sorginek zapatura atzeratu zuten jaia. Gure Ametsa jatetxean batu ziren bazkaritarako Arabako Elosuko ema- kumeekin, 33 guztira. Sorginen artean ohitura bihurtu den erratzen zozketa ere egin zuten, eta baita Elosuko emakumeekin lehia sanoan jokoak ere. Aurreratu digute Sorginek aurtengo bidaia Iruña-Veleiara eta Errioxara egingo dutela maiatzean.



**Elgetarrak, ardo upategietan.** Zapatuan, 30 elgetar inguru Arabako Errioxan izan ziren. Bastidako Gonzalez Teso upategian izan ziren. XV. mendeko lur azpiko pasabideak (argazkian) eta instalakuntza modernoenak uztartzen dira bertan. Samaniegoko Baigorri upategiko ardoa ere dastatu ahal izan zuten. Upategi hori Iñaki Aspiazu arkitekto bergararrak diseinatutakoa da.



**Kinto bazkaria.** 1945ean jaiotako hainbat arrasatearrek kinto bazkaria izan zuten zapatuan. Txikiteoa elkarrekin egin ostean, Bittori erretegian elkartu ziren bazkaltzeko 23 lagun. Bazkaldu ostean, berriketan jardun zuten batzuek, eta izan zen lagun arteko hitzordua karta jokorako aprobetxatu zuenik ere. Bazkaritako irudiak bideo kamerarekin ere filmatu zituzten, oroitzapen modura.



**60ko kintoak Arrasaten.** 1939an jaio eta 1960an soldadutzara joan ziren kinto arrasatearrek urteroko ospakizuna egin zuten zapatuan. San Frantziskon meza entzun ostean, Amaika Gazte elkartean egin zuten bazkaria 29 gizonek. Bazkalostean, ez zuten konturik falta izan, ezta kanturik ere, umoretsu gogoratu zituzten-eta garai bateko kanta ezagunak mahaiaren inguruan.

hildakoak

- **Nora Ibarguren Txintxurreta.**
Bergaran, martxoaren 8an. Hilabete bat.
- **Inazio Beristain Urkiri.**
Bergaran (Elosu), martxoaren 10ean. 83 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen: **943 25 05 01**

**Eskelaren prezioa: 87 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **100 €.**

**GOIENKARIA: astero, 45.000 irakurle.**

URTEURRENA

## Juan Kortabarria Gabilondo

Maritxu Arandoren alarguna



Lehen urteurreneko meza domekan, martxoaren 18an, 11:30ean, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## zorion agurrak


ARRASATE
**Beñat Salaberri**
Otsailaren 28an, 6 urte. Zorionak, Arizmendi Sanvi txikiko lagunen partetik.


ARETXABALETA
**Oier Arizabaleta**
Martxoaren 2an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.


OÑATI
**Oihana Elortza**
Martxoaren 7an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako. Lankideak.


ARRASATE
**Arantza Valera**
Martxoaren 9an, 6 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunen partetik.


ARETXABALETA
**Karmelo Zabala**
Martxoaren 9an, urtebetetzea. Zorionak, eta segi horren gazte! Etxekoen partetik.


DEBAGOIENA
**Aritz Markaide**
Martxoaren 11an, 8 urte egin zituen. Zorionak, etxeko guztien partetik!


DEBAGOIENA
**Jose Antonio Markaide**
Martxoaren 11n, urtebetetzea. Zorionak, etxeko guztien partetik!


ARRASATE
**Izar Ijurra Goñi**
Martxoaren 11n, 9 urte. Zorionak, Aitor, Naia, Josu, Eider eta Garaziren partetik.


ARRASATE
**Uxue Ezpeleta**
Martxoaren 11n, 8 urte bete ditu. Zorionak, eta muxu handi-handi bat.


DEBAGOIENA
**Eider Markaide**
Martxoaren 13an, 10 urte. Zorionak, etxeko guztien partetik!


ESKORIATZA
**Jonathan Valor**
Martxoaren 12an, 25 urte. Zorionak *Jonhy*! Bueno, bueno, Marikarmen! Ja, ja! Koadrilakoak.


BERGARA
**Uxue Azkarate**
Martxoaren 12an, 3 urte. Urte askotarako! Ane, Maddi eta gurasoen izenean.


BERGARA
**Julen Arriola**
Martxoaren 12an, 5 urte bete ditu. Zorionak eta urte askotarako! Etxekoen partetik.


ARRASATE
**Leire Presa Goñi**
Martxoaren 13an, urtebetetzea. Zorionak, familia eta lagunen partetik!


ARRASATE
**Xabier Urtzelai**
Martxoaren 13an, urtebetetzea. Zorionak, Xabi! Hemen dago zure koadernua, etorri nahi duzunean.


OÑATI
**Marta Leturia**
Martxoaren 13an, urtebetetzea. Zure falta igartzen dugun lankideen partetik, zorionak!


ARRASATE
**Jose Luis Aranburu**
Martxoaren 13an, 67 urte. Zorionak, aitona, eta muxu handi bat zure iloba Eritz, Jokin eta Ainhitzeren partetik.


BERGARA
**Iker Ugarte Gabilondo**
Martxoaren 14an, urtebetetzea. Zorionak, Iker! Etxekoen partetik.


IDIAZABAL
**Eritz Iparragirre**
Martxoaren 14an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasa eta muxu handi bat Arrasateko aitaita eta amamaren partetik.


ARRASATE
**Jon Berezibar**
Martxoaren 14an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, lankideen partetik. Pizzak oso goxoak!


ARETXABALETA
**Markel Arana**
Martxoaren 15ean, 3 urte. Zorionak, Martxelo, familixako danon partetik! Ondo-ondo pasau zure eguna.


OÑATI
**Irune Elexpuru**
Martxoaren 15ean, urtebetetzea. Lehengusu eta familiaren partetik, zorionak!


ARETXABALETA
**Urko Egia**
Martxoaren 15ean, 2 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat, etxeko guztien partetik.


ARETXABALETA
**Iker Seijo Fernandez**
Martxoaren 16an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat guraso, anaia eta etxeko guztien partetik.


ARETXABALETA
**Iratxe Bengoa**
Martxoaren 17an. Zorionak birritan, familia haztearren eta urteak betetzearren. Lankideen partetik, muxu bana.


ARRASATE
**Maren Carmen Joosten**
Martxoaren 17an, 2 urte. Zorionak eta muxu handi-handi bat, etxekoen partetik.

# ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ASTELEHENEKO GOIENKARIAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia, eta emaiozu ezusteko ederra!

## jaiotakoak


**Enaitz Arregi Rodriguez**
Aretxabaleta > 3,050 kilo. Martxoaren 4an. Gurasoak: Maitane (Aretxabaleta) eta Ekaitz (Aretxabaleta). Argazkian, Enaitz gurasoekin agertzen da.


**Ekhi Larrañaga Goñi**
Antzuola > 4,190 kilo. Martxoaren 5ean. Gurasoak: Aitziber (Antzuola) eta Mikel (Antzuola). Argazkian, Ekhi jaioberria bere kuman lo.


**Alejandra Morais Coca**
Antzuola > 3,390 kilo. Martxoaren 7an. Gurasoak: Araceli (Antzuola) eta Jorge (Antzuola). Argazkian, Alejandra lotan agertzen da.


**Iraia Sarabia Gamazo**
Arrasate > 3,140 kilo. Martxoaren 9an. Gurasoak: Amaia (Soraluze) eta Iker (Arrasate). Argazkian, Iraia jaioberria aitarekin eta amarekin agertzen da.


**Maialen Gonzalez de Martin Bengoa**
Aretxabaleta > 3,000 kilo. Martxoaren 9an. Gurasoak: Iratxe (Aretxabaleta) eta Joseba (Aretxabaleta). Argazkian, umea amarekin.


**Urko Gainza Urtzelai**
Bergara > 3,067 kilo. Martxoaren 10ean. Gurasoak: Nagore (Bergara) eta Xabi (Bergara). Argazkian, Urko haurra amarekin ikusten dugu.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

# PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: *astelehena@goiena.com*

ASTELEHENEKO Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2007-03-12

**Begoña Errazti** > Eusko Alkartasuneko burua

# "Gauzarik bitxiena eskatzen dut jatetxean"

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

**Politikarekin eta Nafarroarekin lotzen dugu gehienetan Begoña Errazti. Iruñean bizi arren, Bizkaian jaiotakoa da bera eta, politikan sartu aurretik, Nafarroako Ikastolen Federazioan lan egindakoa da. Mundakara joaten da lasaitzera, paseatzera.**

**Zuzendari kargua duen emakumea. Askotan erakutsi behar izan duzu bateragarriak direla?**

Ez nik bakarrik, uste dut emakumeok oraindik askotan egin behar dugula hori. Bestalde, errazago berba egiten dute emakume batek duen itxura fisikoaz gizonezko batek duenaz baino. Askotan gertatzen da hori.

**Ospatzen duzu martxoaren 8a?**

Egia esan, ez dut aparteko ekitaldirik prestatzen, baina konturatzen naiz zein egun den, bai.

**Haurtzaindegi zerbitzua izango duzue legebiltzarrean?**

Legebiltzarkideok ez dugu amatasun edo aitatasun bajarik. Botoa ezin diogu inori delegatu. Beraz, beste bide batzuk aurkitu behar dira. Nire semeak hazita daude dagoeneko, baina badira ume txikiak dituzten legebiltzarkideak.

**Egiten duzu zuk eskulanik lihoarekin?**

Gurutze puntua dakit egiten baina ez pentsa egunero egiten dudanik, e?

**Esaten duten bezain sukaldari ona zara?**

Disfrutatu egiten dut platerak prestatzen, baina ez ditut inoiz probatzen mahaira atera aurretik; aliritzira egiten ditut.

**Eta zuk zer eskatzen duzu jateko jatetxe baten?**

Duten gauzarik bitxiena. Beti probatzen ditut horrelakoak.

**Poesia gustuko ei duzu.**

Bai, asko gustatzen zait. Hala ere, nobelak edo bestelako generoak ere irakurtzen ditut. Orain, adibidez, euskal lihoari buruzko liburu bat dut eskuartean. Oso interesgarria da.

**Politikak edo futbolak berotzen du gehiago jendea?**

Euskal taldeak dauden bezala egonda, futbolak, akaso.

**Benito Lertxundiren zein kantu duzu gustukoena?**

*Oi ama Eskual Herria*, duda barik. Behin, Saharan geundela, hantxe ari ziren dantzan batzuk. Bat-batean, kantu hori isilean, marmarrean, abesten hasi ginen batzuk, eta han geunden euskaldun guztiok abestu genuen. Baina modu naturalean gertatu zen. Ikaragarria izan zen.

TEST-A

**Herria:** Barakaldo. **Adina:** 49 urte. **Ikasketak:** Historian lizentziaduna eta enpresen kudeaketan masterra. **Zaletasunak:** Poesia irakurtzea eta paseatzea. **Ondo prestatzen duzun sukaldeko plater bat:** Wok-a deskubritu dut orain, eta txoratuta nago horrekin. **Semeak:** Zorte handia dut ama naizelako. **Orrazkera:** Ile gorria eta kopetak nituen txikitan; oraingo orrazkera erosoa zait. **Sahara:** Ikaragarri maite dut, sarri joaten naiz.



ERRAZTI Urteek esperientzia ematen dutela esan digu Begoña Erraztik. GOIENKARIA

## www.goiena.net

**Emakume Langilearen Nazioarteko Eguneko ekintzetan parte hartu duzu aurten?**




## biharamuna

Oier Bolibar

### Zubi intelektualak

Hizketagai ditugu zubiak, nonbait jabego intelektuala baitaukate orain. Zubia, mugak gainditzeko egina, bi espaloiak bateratzea ahalbidetzen duena, bi uhalde elkartzen dituena, orainaldia lehenaldi egiten duena ere bai.

Beharrezkoak ertzak hurbiltzen laguntzeko, eta are gehiago gurea bezalako gizarte baten, eta gurea bezalako orografia baten. Zubirik gabeko Euskal Herririk ba ote? Beti izan dira halere zubiak aitzakia, **Condor Legio**tik hasita, hauek ez baitzuten Gernika bera jomuga nonbait, inguruan dagoen zubi xume bat baino.



Badira zubirik eraiki nahi ez dituztenak, badira zubiak aitzakiatzat erabiltzen dituztenak, badira zubia zeharkatzen ausartzen ez direnak, badira jatorri ezberdineko bi zubik bat egin eta horretaz etekin subjektiboa ateratzen saiatzen direnak, badira zubia bertan behera botatzen saiatzen direnak...

Bada bi zubi bat egingo dituen **Arata Isozaki**rik? Bada bi zubiren arteko integrazio eta fusio funtzionala lortuko duen **Calatrava**rik? Bada penintsula irla bihurtu eta zubiz lotuko duen **Zaha Hadid**erik? Bada hutsaren zabaltasuna pasabidez josiko duen **Alejandro Zaera**rik? Direnak direla, behar ditugu, gizarteak zeharkatu nahi dituelako.

## eguraldia



| MINIMOA | MAXIMOA |
|---|---|
| +06 | +14 |

Astea eguraldi ederrarekin hasiko dugu. Goizeko lainoa desagertu ostean, zerua urdin egongo da, goi-hodei batzuk salbu.

www.euskalmet.euskadi.net


Euskal soinu eta irudiak zure eskura!
SOINUAK: Bidali, SOINUE+hutsunea+KODEA
ABESTIAK: Bidali, SOINUP+hutsunea+KODEA
LOGOAK: Bidali, SOINUL+hutsunea+KODEA
JOKOAK: Bidali, SOINUJ+hutsunea+KODEA
5767 zenbakira
SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa
smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak
WEBGUNEAN www.smsoinu.com

ABESTIAK POLIFONIKOAK (SMS 1)
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA
Trikitixa
Bexamela ta pastela (Maixa ta Ixiar) | BEXAMELA
Bokespok (Kepa Junkera) | BOKESPOK
Hik lan eta nik jai (Tapia) | HIK
Itsas ontzi baten (Kaxiano) | ITSAS
Kupela (Epelde eta Larrañaga) | KUPELA
Mila galdera (Alaitz / Maider) | MILAI
Nirekin (Gozategi) | GOZATEGI
Ny Hirahira (Kepa Junkera) | HIRA
Txanpon baten truke (Alaitz / Maider) | TXANPON
Himnoak
Eibar | EIBAR
Athletic Club | BILBAO
Osasuna | OSASUNA
Reala | REAL
Real Union | UNION
Herrikoiak
Bagare | BAGARE
Desde Santurce a Bilbao | DESDE
Ikusi Mendizaleak | MENDI
Pintxo-pintxo | PINTXO
San Simon eta San Judas | SAN
Jaietakoak
Artillero dale fuego | ARTILLERO
Marijaia (Kepa Junkera) | JAIA
San Fermin | FERMIN
San Martzialetako alardea | SAN MARTZIAL
Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) | BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) | POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) | FURRA

SOINUAK ERREALAK (2 SMS)
1,2,3,4...Real!! | REAL
Alboka | ALBOKA
Athletic Iuep!! | IEUP
Buztan bertsoa | BERTSO
Hartu...Aitaren ta semea.. | AITAREN
Hartu...Ansar | ANSAR
Hartu...Argentinarra | ARGEN
Hartu...Mexikarra | MEXIKO
Hartu...Miamol! | MIAMOL
Independentzia! | INDEPEN
Irrintzia | IRRINTZI
Jotake irabazi arte! | JOTAKE
Milazu! (pilota) | MILAZU
Suprinua | SUPRINU
Tobera | TOBERA
Txalaparta | TXALA
Txanbela | TXANBERA
Txoootx | TXOTX

LOGOAK (SMS 1)
KODEA

IKURRI4, ADARIAK, MUSKARIA, EGUZKILORE1
EH1, BABAK, KALABERA1, EGUZKILORE2
BILBO, BERAKATZAK, POPATIK, EGUZKILORE3

OHARRAK
1.BATERAGARRITASUNA: Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: www.smsoinu.com/bateragarri Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
2. BALDINTZAK: Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
3. ZALANTZAK: Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: smsoinu@smsoinu.com / edo deitu 902 01 21 48 telefonora.
4. PERTSONALIZAZIOAK: Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.